

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

2018ko eta 2019ko enplegu publikoaren eskaintzetako plazen deialdia, oinarri orokorrak eta hautaketarako berariazko oinarriak

Tokiko Gobernu Batzarraren 2021eko azaroaren 4ko Erabaki bidez, honako hau erabaki da:

LEHENENGOA. Arau orokorrek ezarritako oinarri orokorrak onestea, enplegu publikoaren eskaintzak garatzean Amurriko Udaleko funtzionarioen eskaletan eta azpieskaletan sartzeko hautaketa proben deialdiak arautuko dituztenak, I. Eranskineko edukiarekin.

BIGARRENA. Hautaketa prozesuaren deialdiak eta berariazko oinarriak onestea (II. Eranskina) aurrekontu plantillako plaza huts hauek betetzeko, 2018 eta 2019 ekitaldietarako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan jasotakoak:

- Administrari laguntzaileen 3 plaza, Administrazio Orokorreko eskalakoak, Laguntzaile azpieskala, C2 taldea, txanda librean (bi sarbide orokorrean eta beste bat desgaitasuna duten pertsonen erreserbatuta).

- Ofizioen ofizial plaza bat, igeltseroa, Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Bereziko eskala, C2 taldea, txanda librean.

- Gizarte langile plaza bat, Administrazio Bereziko eskalakoa, Azpieskala Teknikoa, A2 taldea, txanda librean.

- Udaltzain lehenaren plaza bat, Administrazio Bereziko eskalakoa, Zerbitzu Bereziko eskala, C1 taldea, barne sustapena.

- Administrari plaza bat, Administrazio Orokorra eskalakoa, Administrazio azpieskala, C1 taldea, barne sustapena.

HIRUGARRENA. Iragarkia eta deialdia arautzen duten oinarri orokorrak eta berariazko oinarriak ALHAOn eta www.amurrio.eus udal webgunean argitaratzea agintzea, baita deialdiaren pasarte bat Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea agintzea ere; iragarki horren datak eskaerak aurkezteko epea zenbatzeko balioko du.

I. ERANSKINA

OINARRI OROKORRAK

LEHENENGOA. OINARRIEN XEDEA.

Amurriko Udaleko funtzionarioen plazetan sartzeko hautaketa proben deialdiak arautu behar dituzten arau orokorrak ezartzea da oinarri hauen xedea.

Oinarri hauek oro har aplikatzea alde batera utzi gabe, hautaketa sistema, txanda, berariazko betekizunak, azterketak eta gainerako arau zehatzak lehentasunez deialdi bakoitzeko berariazko oinarriek arautuko dituzte.

BIGARRENA. TRATU BERDINTASUNAREN PRINTZPIOA.

Bat etorri Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluan eta abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. eta 9. artikuluetan ezarri zenarekin, deialdiek tratu berdintasunaren printzipioa beteko dute, eta ezingo da onartu diskriminaziorik, jaiotze, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozial bategatik, ez badago hori babesten duen araurik, hain zuzen ere tratu desberdina kasu justifikatu, arrazoitu, neurrizko eta kongruentean oinarritzen duena.

HIRUGARRENA. PLAZEN DESKRIBAPENA.

Plazak prozesu bakoitzaren berariazko oinarrietan deskribatuko dira, enplegu publikoaren eskaintza onartuko duen kasuan kasuko ebazpenak edo plangintzako pareko tresnak ezarritako inguruabarretan.

LAUGARRENA. IZANGAIEN BETEKIZUNAK.**1. Betekizun orokorrak.**

Deialdien xede diren eskala eta kidegoetan sartu nahi duten izangaiek parte hartzeko hurrengo betekizun orokorrak bete beharko dituzte, baita kasuan kasuko berariazko oinarrietan ezarriko diren betekizunak ere:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta espainiar estatuak berretsitako nazioarteko itunak aplikatzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea.

Bidenabar, Europar Batasuneko beste estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahalko dute, betiere zuzenbidez banatuta ez badaude. Horrez gain, baldintza berdinetan, bi horietako ondorengoek ere parte hartu ahalko dute, hogeita bat urte baino gutxiago badute edo adin horretatik gorakoak, mendekotasuna badute.

b) Gaitasuna: Lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea; beharrezko gaitasun psikofisikoa eduki beharko da, eta desgaitasuna bateragarria izan beharko da deitutako plaketako lanpostuetako funtzio eta betebeharrak ohikotasunez betetzearekin.

c) Adina: Hamasei urte beteta izatea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gaindituta ez izatea, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateginaren 56. artikuluekin bat etorritik.

Berariazko oinarrietan gutxienez hemezortzi urteko adina eskatu ahalko da agintea aplikatzea eskatzen duten plaketara edo osasunerako arriskutsuak izan daitezkeen funtzioak dituzten plaketara sartzeko.

d) Gaitzea: Diziiplina espediente bidez baztertuta ez egotea administrazio publiko, organo konstituzional edo autonomia erkidegoetako estatutuen arabera erakunderen zerbitzutik, eta epai bidez erabat edo bereziki ezgaituta ez egotea enplegu edo kargu publikoak izateko eta funtzionarioen kidegora edo eskalara sartzeko.

Beste estatu bateko herritarra izanez gero, pertsona desgaitua edo horren pareko egoera batean ez egotea eta norberaren estatuan egoera berean egonda enplegu publikora iristeko eragozpen den diziplinazko zehapenik edo horren parekorik ez izatea.

e) Titulazioa: Deialdi bakoitzeko berariazko oinarrietan eskatutako titulazioa izatea.

Titulua atzerrian lortu duten izangaiek baliozkotuta daukatela frogatu beharko dute, edo bestela, kasua bada, homologazioaren egiaztatzea badutela.

f) Ezintasuna edo bateraezintasuna: Administrazio publikoen zerbitzura dauden langileen bateraezintasunei dagokienez indarrean dagoen araudietan ezarritako ezintasun eta bateraezintasun kasuren batean ez egotea; nolahi ere, gaur egun kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezinen bat dutenek aipatutako lege arauak ezarritako aukeratzeko eskubidea baliatu ahalko dute.

g) Tasak: Indarrean dagoen udal ordenantzan azterketa egin ahal izateko ezarritako eskubide tasa ordaindu izana, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

h) Kasuan kasuko berariazko oinarrietan hautaketa prozesu bakoitzerako ezarriko diren bestelakoak.

Deialdian parte hartu nahi dutenek eskatutako betekizun guztiak bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den datan. Halaber, betekizun guztiak bete beharko dituzte hautaketa prozeduran zehar harik eta langilea izendatu arte, gaitasun funtzionalari buruz b) atalean aipatutakoa salbu; kasu horretan, udal zerbitzu medikoei ziurtatuko dute, praktikaldiko edo karrerako funtzionario izendatu aurretik justu. Hala ere, prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak izangaietako bati deialdian eskatzen diren betekizunen bat falta zaiola jakin badu, aurretiaz interesdunari entzunaldia eginda, baztertuta geratuko da, eta egun horretan bertan hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari jakinaraziko zaio.

2. Barne sustapeneko txanda.

Barne sustapenari erreserbatutako plazetan parte hartuko duten izangaiak zerbitzu aktiboan edo zerbitzu berezietan egon beharko dira jatorrizko plazan, eta betekizun hauek bete beharko dituzte:

a) Amurrioko Udaleko karrerako funtzionario taldean egotea, existitzen den eskalaren batean, lortu nahi dutena baino justu beheagoko sailkapeneko taldearen edo azpitaldearen plazan, edo talde edo azpitalde berean, deialdiaren berariazko oinarriekin bat etorritik.

b) Jatorrizko plazarekin bat datorren postu batean bi urteko zerbitzu aldia osatu izana, Amurrioko Udaleko karrerako funtzionario taldean.

Udaltzaingoaren kidego barruko sustapenen kasuan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testuategia onartu zuen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da (78. artikulua).

c) Jatorriko eskalan zerbitzu aktiboan edo harekin asimilatuan egotea, edo zerbitzu berezietan.

d) Eskatutako titulazioa edo antzinatasuna izatea, baita lortu nahi den plazara sartzeko eskatutako gainerako betekizunak betetzea ere.

3. Desgaitasuna duten pertsonen txanda.

Desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatutako plazetan aurkeztuko diren izangaiak ezaugarri hori aitortuta izan beharko dute, ehuneko 33ko desgaitasun graduarekin edo gradu handiagoarekin, administrazioaren organo eskudunak emandako ebazpen edo ziurtagiri bidez (Imsero, Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saila, eta abar).

4. Parte hartzeko baldintzak.

a) Hautaketa prozesuan parte hartzea borondatezkoa izango da, eta, hala badagokio, azterketa psikoteknikoak eta izaera azterketak egiteko baimena eman beharko da, eta azterketa horien emaitzak beste balorazio faktore baten moduan erabiltzea onartu beharko da, oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

b) Oinarri hauetan jasotako azterketa fisikoak egitera aurkezte hutsarekin izangaiak haien integritate fisikoaren inguruko erabateko erantzukizuna hartuko dute haien gain, eta korporazioa zein epaimahai kalifikatzailea ariketa egitean sor daitekeen edozein lesioren erantzukizunetiko salbuetsita egongo dira, interesdunak ez badie Amurrioko Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuko langile medikoei jakinarazi gogoan hartu beharreko edozein inguruabar (gaixotasunak edo minak, alergiak, haurdun egotea eta abar), aipatutako Prebentzio Zerbitzuak gomendatutako kasuan kasuko prebentzio neurriak hartze aldera.

5. Datuen babesa.

a) Oinarri hauen xede den edozein hautaketa prozesutan parte hartuz gero izangaiaik baimena emango du honako hauei dagokienez:

- Eskabidean jasotako datu pertsonalak erabiltzea (izena eta abizenak, NANA eta prestakuntza maila) buletinetan, iragarki tauletan, webgunean eta hautaketa prozesuaren emaitza partzialak edo behin betiko emaitzak komunikatzeko erabiliko den beste edozein baliabidetan argitaratzeko.

- HAEE-IVAPek edo beste edozein erakunde eskudunek euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza maila egiaztatzea eta, oro har, hautaketa prozesuari dagozkion azterketak ongi prestatu eta egiteko beharrezkoak diren bestelako datuak egiaztatzea epaimahaik berak, edo epaimahaiaik hala agindutako enpresak edo organismoak.

- Deialdietan kontuan hartu beharreko datuak beste administrazioei kontsultatzea:

- Eusko Jaurlaritza: Hizkuntza ziurtagirien hizkuntza eskakizunak.

- Eusko Jaurlaritza, HAEE-IVAP: Ikastaroak egiaztatzea.

- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra: Lan bizitza.

- Hezkuntza eta Kultura Ministerioa: Unibertsitate mailako eta unibertsitate mailakoak ez diren tituluak.

- Trafiko Zuzendaritza Nagusia: Gidatzeko baimenak.

- Halaber, osasun langile eskudunek egiaztatzea izangaieik bat egiten dutela kasuan kasuko deialdian aurreikusitako salbuespen medikoen multzoarekin.

b) Oinarri hauetan azaltzen den hautaketa prozesuetan bete egin behar da publizitatearen printzipioa; horrenbestez, ez da onartuko eskabiderik, baldin eta izangaiaik ez badu datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzeko baimenik ematen.

c) Oinarri hauetan aipatutako hautaketa prozesuak osatzearen ondoriozko lan poltsak eratzeari dagokionez hamargarren oinarrian aurreikusitako ondorioetarako, izangaieik prozesu horietan parte hartzeko eskabidean adierazi beharko dute haien datuak (izena eta abizenak, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta prestakuntza maila) administrazio publikoko beste entitate batzuei lagatzearen aurka daudela, soilik eta eskusiboki beste entitate horiek lege ezarritako inguruabarretan enplegu eskaintzak egin ahal izateko; aurka daudela berariaz agerrarazten ez badute, horretarako baimena ematen dutela ulertuko da.

d) Izangaieik emandako datuak fitxategi batean sartuko dira, eta fitxategi horren organo arduraduna Amurrioko Udaleko Langileen Arloa izango da.

e) Interesatutako pertsonak datuetara sarbidea izan, datuok zuzendu, baliogabetu eta horien aurka egiteko eskubidea baliatu ahaliko dute; horretarako idatziz jo beharko dute honako helbide honetara: Amurrioko Udaleko Langileen Arloa Juan de Urrutia plaza, z.g. Amurrio 01470.

BOSGARRENA. ESKABIDEAK ETA ONESPENAK.

1. Eskabideak betetzea eta aurkeztea.

a) Eskabideak eredu ofizialean bete eta aurkeztu beharko dira, Amurrioko Udalaren webgunean eskura dagoen eredu ofizialean (www.amurrio.eus), egoitza elektronikoaren bitartez, https://udalarenegoitza.Álava.eus/portal/entidades.do?error=-1&ent_id=4&idioma=1, edo izangaieien eskabideak izapidetzeko prestatutako den udaleko erregistro telematikoa. Prozedura hori erabiltzeko sinadura digital baliagarria, lizenpe txartela, NAN elektronikoa, FNMT ziurtagiri digitala edo BAKQ txartela eduki beharko da.

Era berean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan aurreikusitakoaren arabera ere aurkeztu ahalko dira.

b) Borondatez hala nahi dutenentzat Amurrioko Udalak, prozesu bakoitzean, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan ordenagailu bat prestatuko du eskabidea betetzeko, eta pertsona interesdunekin batera elkarlanean jardun eta aholkularitza eskainiko die eskabidea zuzen bete dezaten.

c) Eskabideak korporazioko alkatetzara igorri beharko dira; deialdiaren iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean (EAO) argitaratzen egunaren hurrengotik zenbatzen hasita hogeit hamar eguneko epean igorri beharko dira.

d) Eskabideen atal guztiak bete beharko dira, bat etorritik deialdiko berariazko oinarriek ezarritako dituzten jarraibideekin. Eta deialdi bakoitzeko oinarri orokorretan eta berariazko oinarrietan ezartzen diren betekizun guztiak betetzen direla adierazi beharko da bertan.

Hautaketa prozesuan lehiaketa aldirik badago, izangaiek alegaturiko merezimenduen gaineko adierazpena aurkeztu beharko dute eskabidearekin batera. Eskabideak aurkezteko epe barruan alegatutako merezimenduez gain besterik ezingo da baloratu.

Lehiaketa fasean baloratu beharreko merezimenduak agiri bidez egiaztatuko dira, oposizio fasea bukatu ondoren, oposizio faseko emaitzak iragartzearekin batera epaimahai kalifikatzaileak adierazitako epeetan eta moduan; aipatutako egiaztapenak soilik oposizio fasea gaingitzen duten izangaiei eskatuko zaizkie.

Hautaketa prozesua lehiaketakoa baino ez bada, alegatutako merezimenduak egiaztatuko dituzten dokumentuak eskabidearekin batera aurkeztu beharko dira.

e) Tasak: Azterketa egiteko tasa hautaketa prozesuan parte hartu nahi duen izangai bakoitzak eskabidea aurkeztu duen aldi berean ordaindu beharko du, eta ez da itzuliko izangaiei leporatu ahal zaizkien arrazoiak tarteko. Horrenbestez, izangairen bat hautaketa prozesutik kanpo utziz gero betekizunak ez betetzeagatik, prozesua ez gaingitzeagatik edo deialdian eskatutako dokumentazioa ez aurkezteagatik, orduan izangaiari ez zaizkio azterketa eskubideen tasak itzuliko.

Azterketa egiteko eskubidearen zenbatekoa ordaintzeko indarrean dagoen ordenantzan aurreikusitako inguruabarrak jarraitu beharko dira.

Ordainagiria eskabideari atxikiko zaio.

f) Eskabidea ez bada garaiz eta modu egokian aurkeztu, eta ezarritako tasa ez bada ordaintzen eskabidea aurkeztu eta aldi berean, izangaia hautaketa prozesutik kanpo geldituko da.

g) Denborak edo baliabideak egokitzea. Desgaitasunen bat duten pertsonak adierazi egin beharko dute oposizio faseko ariketaren bat egiteko denborak edo baliabideak egokitzea behar ote duten, eta behar dituzten neurriak zehatz adierazi beharko dituzte. Egokitzapenen jatorria ebaluatu ahal izateko eskabidearen batera desgaitasun gradua kalifikatzeko organo teknikoak emandako irizpen tekniko fakultatiboa aurkeztu beharko dute, egokitzapen eskaera justifikatzen duten gabezia iraunkorrak egiaztatuz.

h) Euskara: Nahitaezko hizkuntza eskakizunen bat daukaten postuen plazetarako eskatutako euskararen ezagutza maila egiaztatu ahal dutenek, dela agiri bidez, dela horretarako egingo den azterketa gaingituz, postu horietan zein baldintza hori ez daukaten postuetan aurkeztu ahalko dira. Egiaztapen azterketa egin nahi izanez gero eskabidean adierazi beharko dute.

i) Proben hizkuntza: Eskabideetan, hautaprobak zein hizkuntzatan egin nahi dituzten adierazi beharko dute (euskaraz edo gaztelaniaz). Horri buruz ezer adierazi ezean, proba guztiak gaztelaniaz egingo direla ulertuko da. Nolanahi ere, gaitasun psikologikoak ebaluatzeko probak diseinuan erabilitako hizkuntzan edo hizkuntzetan egingo dira (euskaraz edota gaztelaniaz).

j) Parte hartzeko txandak Eskabidean, izangaiek adierazi beharko dute honako txanda haue-
takoren batean parte hartu nahi dutela: a) Librea, b) Barne sustapena eta c) Desgaitasuna duten
pertsonak, berariazko oinarrietan ezarritakoarekin bat etorriz, eta soilik hiru txanda horietako
batean parte hartu ahalko dute.

k) Eskabideko akatsak eta gabeziak zuzentzea: Eskabidean antzeman daitezkeen egitatezko
okerrak, oker materialak edo aritmetikoak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo
interesdunak eskatuta.

Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artiku-
luan ezarritakoaren arabera, eskabideetan akatsak egonez gero, interesdunei errekerimendua
egingo zaio 10 eguneko epean zuzen dezan, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela
eskabideari uko egin diola, eta eskabidea beste izapiderik gabe artxibatuko da.

2. Eskatzaileen onarpena.

a) Eskabideak aurkezteko epea amaituta, alkatetza dekretu bidez onartuen eta baztertuen
behin-behineko zerrenda onetsiko da. Zerrendetan izangaien izena eta bi abizen jasoko dira,
eta Nortasun Agiri Nazionalaren 4. zenbakitik 6. zenbakira, eta, bestela, ez onartzeko arrazoia
eta eskabidean dauden akatsak edo gabeziak zuzendu behar dituzten kasuak.

Eskabidea epez kanpo aurkeztea ezingo da zuzendu, ezta alegatutako merezimenduen adie-
razpenean akatsak edo omisioak egotea ere ez.

b) Ebazpen hori ALHAOn argitaratuko da eta udalaren iragarkien taulan eta Amurrioko Uda-
laren webgunean (www.amurrio.eus) jarriko da ikusgai; 10 egun balioduneko epea emango da
zerrendatik kanpo utzi izanaren aurka erreklamatzeko eta horrek eragindako dokumentuak edo
akatsak zuzentzeko. Aipatutako erreklamazio aldia igaro ondoren, alkatetzak ebazpen berri bat
emango du, onartutako eta kanporatutako pertsonen behin betiko zerrenda onartuz; behin-be-
hineko zerrenda argitaratzeko modu berean jakinaraziko du.

c) Onartutako eta kanporatutako pertsonen zerrendak onartuko dituzten ebazpenaren aurka
berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Amurrioko Udalaren aurrean, hilabeteko epean, ze-
rrendak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

d) Formulaturako errekurtsoa ez bada ebatzi probak egiteko datan izangai kaltetuek azter-
keta kautelaz egin ahalko dute, baina azterketa ez da baliagarria izango aipatutako errekurtsoa
ezesten bada.

3. Jakinarazpenak.

Balizko jakinarazpenen ondorioetarako, eskaeran adierazitako helbidea bizitokitizat hartuko
da, salbu eta horren ondoren organo deitzaileari berariaz beste helbide bat jakinarazten bazaio.

SEIGARRENA. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

1. Osaera.

a) Deitutako hautaketa prozesuen epaimahai kalifikatzaileak osatzean bete egin beharko dira
Enplegatu Publikoaren Oinarritzako Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren
30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 60. artikulua, ekainaren 7ko 896/1991 Errege De-
kretuaren 4. artikulua, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea 31. artiku-
lua, Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.h) artikulua,
eta Eusko Legebiltzarraren Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko
4/2005 Legearen 20.4 b) artikulua.

b) Epaimahaiak presidentetza, idazkaritza eta deialdian zehaztutako kideak izango ditu;
epaimahaiak gutxienez bost kide izan beharko ditu. Osaera batez ere teknikoa izango da, eta
espezialitate printzipioak ebatziko du; horrenbestez, kide guztiek deitutako plazetara iristeko
eskatutako maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan beharko dute, eta gutxienez

kideen erdiek bete beharreko plazaren ezagutza arlo bereko titulazioa izan beharko dute, eta, egokitzen ez dela justifikatzen bada salbu, gutxienez sexu bakoitzeko %40ko ordezkaritza egon beharko da.

c) Euskara hizkuntzaren ezagutza probari dagokion epaimahaiko kideak bakarrik arlo horretan jardungo du, bestelakorik berariaz erabaki ezean.

e) Epaimahaikide guztiek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea izango dute, idazkariak izan ezik, azken horrek ezango baitu bozkatu. Epaimahairen erabakiak bertan dauden botoen gehiengoz hartuko dira; berdinketak sortuz gero, epaimahaiburu legez diharduenaren botoak apurtuko du berdinketa.

f) Epaimahaikideek ezingo dute esku hartu, korporazioko alkatetza udalburutzari jakinaraziz, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatuz gero, eta izangaiek errekusatu eta errekursoak aurkeztu ahalko dituzte, aipatutako legearen 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

g) Ezingo dira epaimahaikide izan deialdia argitaratu aurreko bost urteetan hautaketa prozesuetan izangaiek prestatzeko lanak egin dituztenak, edo aldi horretan deialdiaren xede diren plazen area funtzional bereko oposizioak prestatzeko zentzoren batekin edozein modutan kolaboratu dutenak.

h) Epaimahaia osatzen duten titular eta ordezkoren zerrenda izenduna hautaketa prozesuan onartutako eta bazterritutako izangaiei zerrendekin batera argitaratuko da ALHAOn, Alkatezaz izendatu aurretik.

2. Eratzea.

a) Epaimahaia eratu eta jardun ahal izateko gutxienez bertaratu beharko dira presidentetza eta idazkaritza postuak betetzen dituztenak (titularrak edo ordezkioak) eta gainerako kideen erdiak.

b) Epaimahaia erabaki ahalko du aholkulari espezialistek parte hartzea, hautaketa prozesua osatzen duten proba guztietan edo batzuetan; kasuan kasuko espezialitate teknikoetara mugatuko dira, bat etorritik Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 31.3 artikuluan ezarritakoarekin, eta aholkularitza eta kolaborazio teknikoa haien espezialitateetan emango dute; ahotsa izango dute baina ezingo dute bozkatu.

c) Presidentetzako karguak betetzen dituztenak ez badira bertaratzen, kargu horren titularrak bere ordezkio pertsona izendatuko du bozkatzeko eskubidea daukaten kideen artean; izendapenik ez badago, kide nagusienak ordeztuko du.

d) Presidentetzaz hautaketa prozesua egitea koordinatuko du, eta bozketetan sor daitezkeen berdinketak bere kalitatezko botoarekin ebatziko ditu. Epaimahaikideek hitz egiteko eta bozkatzeko eskubidea edukiko dute, idazkariak izan ezik; horrek hitz egiteko eskubidea edukiko du, baina botorik ez.

e) Izangai kopuruak hala gomendatzen badu, epaimahai kalifikatzaileak langile administrari eta zerbitzuetako laguntzaile kolaboratzaileak izendatu ahalko ditu, aski kopuruan, epaimahaiko idazkaritzaren gainbegiraketarekin hautaketa prozesua zuzen garatzea bermatu ahal izateko.

f) Epaimahaia osatzen dutenek zein hautaketa prozesuan esku hartuko duten aholkulari edo espezialistek, kasuan kasuko funtzioak betez, izangaiei intimitate eta errespeturako eskubidea bermatuko dute, eta pertsona bakoitzari dagokionez bildutako informazioak tratamendu zuzena jasotzen duela zainduko dute.

g) Epaimahaia gaitasuna izango du hautaketa prozesua zuzen eta modu egokian garatze aldera beharrezko erabaki guztiak hartzeko, oinarri hauetan edo berariazko oinarrietan aurreikusi ez den guztian; bidenabar, oinarriok interpretatu eta aplikatzeari dagokionez sor daitezkeen

zalantza oro ebazteko gaitasuna ere izango du, baita bere funtzioak garatzeari dagokionez ere. Ebazpenen aurka gora jotzeko errekursoak aurkeztu ahalko dira alkatetza udalburutza aurrean, lege ezarritako epean, iragarkien taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

h) Komunikazio eta gainerako gorabeheren ondorioetarako epaimahaiak Amurrión izango du egoitza, Amurrioko Udaleko Erregistro Nagusian, gaur egun Juan de Urrutia plazan, zenbaki gabe.

i) Epaimahaiaren ebazpenen aurka gora jotzeko errekursoa jarri ahalko da alkatetza aurrean hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta.

ZAZPIGARRENA. HAUTAKETA PROZEDURA.

1. Izangaiak hautatzeko prozedura.

Izangaiak hautatzeko prozedura oposizio, lehiaketa edo lehiaketa-oposizioa izango da, kasuan kasuko txandan: librea, desgaitasuna duten pertsonak, eta barne sustapena, bat etorritik deialdiaren berariazko oinarrietan ezarritakoarekin. Hautaketa prozesuetan prestakuntza ikastaroak eta praktikaldia gainditu beharra ezarri ahalko da, bat etorritik deialdiaren berariazko oinarrietan ezarriko denarekin eta indarrean dagoen araudian ezarritako iraupen mugarekin.

Administrazio publikoen jardunaren efizientzia eta eraginkortasun printzipioa dela medio, oposizio fasea lehiaketa fasearen aurretik garatuko da, oposizio fasea gainditu ez duten izangaien merezimenduak baloratzeko lana alferrik ez egiteko.

2. Oposizio fasea.

a) Oposizio fasea deialdiaren berariazko oinarrietan ezarritako ariketek osatuko dute, eta deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den datan indarrean dagoen araudia jakitea eskatuko da.

b) Ariketak teorikoak eta praktikoak izango dira.

c) Nahitaezkoak eta baztertzailak izango diren ariketez gain, borondatezko ariketak egon ahalko dira, deialdiaren berariazko oinarrietan araututakoaren arabera.

d) Programak eta gaiak Ariketa teorikoen programak Toki administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedura erregulatu zuen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorriko dira; arau horretan adierazitakoak gutxienezko edukiak izango dira, eta kasu bakoitzean beharrezkotzat jotzen diren gaiak gehitu ahalko dira, deitutako plazak betetzeko hobekien kualifikatutako izangaiak hautatzea bermatzeko.

Deialdiaren kasuan kasuko berariazko oinarrian jasotako programak hartzen dituen gaietatik gutxienez bat emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudian erregulatutako gaiak buruzkoa izan behar da, eta beste bat laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudian erregulatutako gaiak buruzkoa, baita bi gaiak administrazioaren jardunean aplikatzeari dagokionez ere.

e) Hautaketa probak ariketa praktiko bat edo batzuk izango dituzte, eta izan ahalko dira test psikoteknikoak, mekanografia probak, testuen tratamendua, txostenak eta proiektuak idaztea, kasuak ebaztea, hizkuntza azterketak eta antzeko beste batzuk, bete behar diren postuei dagokienez izangaien prestakuntza ebaluatzeko egokitutako joto beste batzuk.

3. Lehiaketa fasea.

a) Arau orokorrak.

1. Oposizio fasea gainditu duten izangaiak argudiatutako eta ziurtatutako merezimenduak lehiaketa fasean aztertu eta baloratuko dira; bakoitzari dagozkion puntuak emango zaizkio, deialdiaren berariazko baremoekin bat etorritik.

Oposizio faseko azken probaren behin betiko emaitzak argitaratu ostean, berariazko oinarrietan aipatzen diren merezimendu konputagarriak lehiaketa fasean egiaztatzeko epea irekiko da, hala badagokio.

2. Lehiaketa-oposizio sistema bidez egingo diren hautaketa probetan lehiaketa fasea ez da baztertzaila izango, eta ezin izango da kontuan hartu oposizio faseko probak gainditzeko, Toki administrazioko funtzionarioak hautatzeko prozedura arautzen duen ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 4.c) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

3. Lehiaketa fasearen balorazioa ezingo da inolaz ere ez izan oposizio fasean lor daitekeen gehieneko puntuazioaren ehuneko 45 baino handiagoa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. Epaimahaiak deialdiaren berariazko oinarrietan ezarritako epean ebaluatuko ditu alegatutako merezimenduak eta lehiaketa faseko puntuak jakinaraziko ditu.

b) Fase horretan honako atal hauetan jasotako merezimendu bat edo batzuk baloratu ahalko dira:

1. Administrazio publikoan lanpostuak betetzeari buruzko esperientzia profesionala, haien ezaugarriak eta balorazioa berariazko oinarrietan zehaztu badira, berariaz baztertuz, atal honetan baloratzetik, zerbitzu zibil edo merkataritza zerbitzuen errentamendu kontratuak, bekak eta praktika profesionalak. Oro har, esperientzia profesional hori administrazio publiko gisa hartuko diren entitate eta organismoen lotutakoa izango da, indarrean dagoen araudian jasotako esanahiaren arabera (bereziki Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bateginaren bigarren artikulua), eta organo eskudunak emandako ziurtagiri bidez egiaztatuko da.

Hala ere, enpresa publiko edo pribatuaren emandako zerbitzuak ere jaso ahalko dira, berariazko oinarrietan ezarritako inguruabar eta baldintzetan; administrazio publikoan gehienez lortutakoari dagokionaren puntuazio erdia izango da gehienez, hau da, denbora beraren truke puntuazio erdia edo denbora bikoitza puntuazio bera lortzeko.

Bi kasuetan, esperientzia profesionalarekin lotutako merezimenduak ez dira baloratuko, honako hauek berariaz adierazten ez badira:

- Betetako lanpostuaren izena eta kategoria profesionala
- Kontratatuta egon den aldien edo izendapenaren hasiera eta amaiera datak.
- Lanpostuaren funtzio nagusiak, kategoria adieraztea aski deskribatzailea ez bada.

Soilik deialdiaren berariazko oinarrietan adierazitako datari edo datei lotutako aldiak zenbatuko dira, baina inolaz ere ezingo dira kontuan hartu eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren egindako zerbitzuak. Zenbatze aldera, ulertuko da prestazioa lanaldi arruntean bete bada, erabili beharko den formulak lan egindako urte oso bakoitza 365 egunekoa dela ulertu beharko duela, sei hileko bakoitza 180 egunekoa eta hilabete oso bakoitza 30 egunekoa.

Lanaldi partzial edo murriztuko aldiak egonez gero, zenbaketa modu proportzionalan egingo da benetan egindako dedikazio denborari dagokionez eta, betiere indarrean dagoen araudiak horretarako aukera ematen badu, murrizketa eman bada bitzita pertsonala, familia eta lana uztartzeko neurriak aplikatzearen ondorioz, pertsona onuradunaren kasua lanaldi osoan lan egin izan balu modura zenbatuko da.

2. Prestakuntza: Deitutako plazen funtzioarekin lotutako ezagutzak izatea baloratu ahalko da (behar bezala egiaztatuta), betiere kasuan kasuko hautaketa prozesuan onartzeko gutxienez eskatzen dena baino maila altuagoa edo zabalagoa bada. Berariazko oinarrietan atal hori baloratzeko baldintza zehatzak adieraziko dira; hala ere, titulazioak eta prestakuntza baloratzeko eskabidean honako datu hauek adierazi beharko dira:

- Tituluaren eta/edo prestakuntza ikastaroen izen ofiziala.
- Ziurtagiria eman duen entitatea.
- Ikastaroaren ordu kopurua.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa planen parte diren ikastaroak ez dira baloratuko; kasuan kasuko berariazko oinarriek hala aurreikusiz gero titulazioa baloratu ahalko da.

3. Euskara: Euskara jakitea soilik eta eskusiboki derrigortasun datarik gabeko postuak betetzea dakarten plazetan baloratuko da merezimendu gisa, edo eskabideak aurkezteko epea bukatzean derrigortasun data agortu ez bada. Kasuan kasuko postuan eskatutakoa baino hizkuntza eskakizun altuagoak baloratu ahalko dira, bat etorritik deialdiaren berariazko oinarriek ezarritakoarekin.

Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 98. artikuluan zein Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautu zuen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 1.4, 2 d) eta 31. artikuluetan ezarritakoaren babesean, merezimendu horri eman ahalko zaion gehieneko puntuazioa ezingo da izan gainerako hautaketa prozesuari emango zaion gehieneko puntuazio osoaren ehuneko 5 baino baxuagoa, ezta ehuneko 20 altuagoa ere. Hain zuzen ere, lehen edo bigarren hizkuntza eskakizuna esleitura daukaten postuetarako gehieneko puntuazioa ehuneko 5 eta ehuneko 10 artean egongo da; hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna daukaten artean, berriz, ehuneko 11 eta ehuneko 20 artean.

4. Beste hizkuntza batzuk Deialdiaren berariazko oinarrietan ezarritakoarekin bat etorritik, espainiar estatuan zein Europar Batasunean ofiziala den beste edozein hizkuntza baloratuko da.

5. Beste batzuk Aurreko ataletan jaso gabeko beste edozein merezimendu, deialdiaren berariazko oinarriek ebatzitako baldintza eta irismenarekin.

4. Euskararen hizkuntza eskakizuna nahitaez behar duten postuen plazak.

a) Hizkuntza eskakizuna nahitaez esleitura duten lanpostuei dagozkien plazak betetzeak lehenetsia izango du; horrenbestez, kalifikazio onenak lortu izanagatik karrerako funtzionarioko langile izendatzeko proposatutako izangaien artean egingo da, eskatutako hizkuntza eskakizuna ziurtatuta badaukate.

b) Derrigortasun datadun hizkuntza eskakizuna daukaten plazetan aurkeztekin direnek, hizkuntza eskakizuna egiaztatzen ez badute eta nahitaezkoa eta baztertzaila den euskara azterketa gaingitzen ez badute, edo gaingitu arren, plaza mota horietara iristea ezinezkoa bazaie pertsona gai gehiago dagoelako plazak baino, orduan hautaketa prozesuarekin jarraitu ahalko dute derrigortasun datarik gabeko hizkuntza eskakizuna daukaten plazekin; kasu horretan, ariketa horretan lortutako kalifikazioa merezimendu modura hartuko da eta oposizio faseko nahitaezko ariketa guztietan lortutako kalifikazioak errespetatuko dira.

ZORTZIGARRENA. HAUTAKETA PROZEDURA GARATZEA.

1. Hasiera.

Oposizio faseko ariketak ezingo dira hasi deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bi hilabete igaro arte. Hala ere, euskararen hizkuntza eskakizuna eta hizkuntzak jakitea egiaztatzeko probak aipatutako epea igaro aurretik egin ahalko dira, berariazko oinarriek hala ebatzi badute.

2. Argitalpena.

Oposizio faseko lehen ariketa egiteko tokia, data eta hasiera ordua ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta udal webgunean (www.amurrio.eus) argitaratuko da, hautaketa prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartuko duen ebazpenarekin batera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin.

Oposizio faseko gainerako ariketak egiteko iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu ondoren, udalbatzaren iragarki taulan, www.amurrio.eus udal webgunean eta, hala badagokio, ariketak egin diren tokietan; izangai horren berri emango zaie. Iragarki horiek hurrengo ariketa egin baino gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazi beharko dira.

3. Deialdia.

Izangaiei behin baino ez zaie deituko proba bakoitza egiteko; izangaietako bat zeinahi proba egiteko aurkezten ez bada deitu dioten unean, automatikoki ariketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea galduko du eta, beraz, hautaketa prozeduratik kanpo geratuko da, behar bezala justifikatu eta epaimahaiak libreak antzemandako kasuetan salbu. Arau berdina aplikatuko zaie nahitaezko ariketaren bat hasita dagoenean ariketa egitera aurkezten diren izangaiei.

Borondatezko probak egitera berandu joaten badira edo ez badira aurkezten, proba horiei uko egin zaiela uste izango da.

4. Jarduteko ordena.

Izangaiei jarduteko ordena Administrazio Publikorako Estatuaren Idazkaritzak egingo duen zozketaren arabera ebatziko da, bat etorritik 364/1995 Errege Dekretuaren 17. artikuluan xedatutakoarekin. Izangaiei artean ez badago inor lehenengo abizena zozketa horretan atera den letratik hasten zaiona, jarduteko ordena segidako hurrengo letren arabera izango da, dagokion moduan.

5. Identifikazioa.

Epaimahai kalifikatzaileak edozein unetan eskatu ahalko die izangaiei haien burua behar bezala identifika dezaten; horretarako, oposizio faseko ariketa guztiak egitera NANarekin edo beste edozein agiri ofizialekin bertaratu beharko dute, epaimahaiaren aburuz aski bada izangaien nortasuna egiaztatzeko (pasaportea, gidabaimena, Atzeritarraren Identifikazio Zenbakia, eta abar).

6. Denborak eta baliabideak egokitzea.

Bat etorritik abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretuko 8. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin, epaimahaiak gaitasuna izango du deialdi honetako azterketak egiteko denborak eta baliabideak beharrezkotzat jotzen duen gisan moldatzeko, desgaitasunen bat egiaztatu eta eskabidean hala adierazi duten pertsonentzat, betiere horrekin ez bada azterketaren edukia desbirtuatzen, eta bertan eskatutako gaitasun maila ez bada kaltetzen edo murrizten; azterketak gainerako izangaiei baldintza berdinetan egiten direla bermatu beharko da.

7. Ariketen arteko tartea.

Oposizioko ariketa bat amaitu eta hurrengo hasteko gutxienez 72 orduko epea igaro beharko da, eta gehienez 45 eguneko epea. Hala ere, eta egokitzeaz joz gero, epaimahaiak zenbait ariketa saio berean egitea ezarri ahalko du, baita egokitzeaz jotako ariketak izangaiek irakurtzea ere; publikoa izango da eta behar bezala adierazitako egun eta orduan egingo da; kasu horretan 48 ordu lehenago jakinarazi beharko da.

8. Iruizurrezko jokabidearen eta lehia desleialaren tratamendua.

Izangaiek, ez pertsonalki ez hirugarrenen bitartez, ezingo dute epaimahaiakideengana jo, banaka, hautaketa prozesuarekin zerikusia duen edozein gai aztertzeko. Hautaketa prozesuaren inguruan sor daitezkeen auziak idatziz azaldu beharko dizkiote epaimahaiari.

Epaimahaiak hautaketa prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu probak normaltasunez egitea eragozten duten iruzurrezko ekintzak egiten dituzten pertsonak, edozein proba normaltasunez garatzea eragozten dutenak edo berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioen arabera lehia desleiala sortzen dutenak. Jarduera horiek bilkuraren aktan jasoko dira.

Hautaketa prozesuko azterketak egitean ez da baimenduko gailu edo baliabide elektronikoak erabiltzea edo erabiltzea, lehenago aipatutako printzipioak saihesteko erabili ahal badira.

BEDERATZIGARRENA. HAUTAKETA PROZESUAREN KALIFIKAZIOA.**1. Emaitzak argitaratzea.**

Ariketa bakoitzaren puntuazioa udaletxeko iragarki taulan eta udalaren webgunean (www.amurrio.eus) argitaratuko den iragarkiaren bidez jarriko da jendaurrean, epaimahaiak kalifikazioak erabaki eta hurrengo 24 orduetan.

2. Oposizio faseko ariketen kalifikazioa.

Oposizio faseko ariketa bakoitzaren kalifikazioa emango da, oro har, epaimahaikideek emandako puntuazioak batuz, eta guztirakoa kide kopuruaz zatituz; emaitza ariketa bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da. Hala ere, epaimahaiak kalifikaziorik altuena eta baxuena baztertzea erabaki ahalko du edo, hala badagokio, hala errepikatuta ageri denetako bat, gainerako kideek emandako batez besteko kalifikazioari dagokionez gehiegi urruntzen dela ikusten duenean eta, hala, kalifikazio globalaren homogeneotasun handiagoa lortu.

3. Merezimenduak lehiaketa fasean baloratzea.

a) Oposizio fasea gainditu dutenek berriazko oinarrietan adierazitako epea izango dute alegatutako merezimenduen agiri egiaztagarriak aurkezteko, betiere kasuan kasuko hautaketa prozesuan parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den datari dagokionez.

b) Oposizio fasea gainditu duten pertsonen lehiaketako merezimenduak baloratzeko deialdiko berriazko oinarrietan ezarritako baremoen arabera puntuak batuko dira; ezingo da gainditu oposizio fasean lor daitekeen gehieneko puntuazio osoaren ehuneko 45.

4. Azterketak berrikustea eta kalifikazioen erreklamazioak.

Oro har, hiru egun balioduneko epea ezarriko da, epaimahaiak ebazpena argitaratu duen datatik zenbatuta, egindako azterketak berrikustea eskatzeko edo azterketen kalifikazioen inguruko erreklamazioak aurkezteko. Nolanahi ere, epaimahaiaren jarduna aurkaratzeari buruzko seigarren oinarrian ezarritakoa bideratu ahalko da.

5. Azken kalifikazioa eta ordena.

a) Azken kalifikazioa lortzeko batu egingo dira oposizio fasean lortutako puntuazioak (ariketa bakoitzeko puntuazioen batura) eta, hala badagokio, lehiaketa fasean lortutakoak (merezimendu bakoitzaren puntuazioen batura); hala, plazak lortu ahalko dituzten izangaien ordena ebatziko da.

b) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Eusko Legebiltzarraren 6/1989 Legearen 27.2 artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 20.4a) artikulua diotenari jarraiki, puntuazio berdinketa gertatuz gero, kasuan kasuko plazan ordezkaritza ehuneko 40 baino gutxiago duen sexuko pertsonari emango zaio lehentasuna, salbu eta beste izangai batzuek neurri hori ez aplikatzeko arrazoiak dituztenean, sexu arrazoiengatik diskriminatzaileak izanik, esate baterako, lana lortzeko eta lanean sustatzeko zailtasun bereziak dituzten talderen bateko kidea denean.

c) Aurreko paragrafoan araututakoa gorabehera, berdinketak jarraitzen badu ordena ebatziko da, lehenengo eta behin, Amurrioko Udalean zerbitzuak denbora luzeagoz eman dituen izangaiaren alde eginez; bigarrenik, Euskal Administrazio Publikoan zerbitzuak denbora luzeagoz eman dituen izangaiaren alde; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuak denbora gehiagoz eman dituenaren alde; laugarrenik, oposizio fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde; eta, azkenik, adinez nagusiena den izangaiaren alde.

d) Soilik oposizio fasea dagoen hautaketa prozesuetan, berdinketa suertatuz gero, eta aurreko b) atalean ezarritakoa gorabehera, berdinketak jarraitzen badu, orduan oposizio faseko ariketa guztiak gainditu dituzten pertsonen artean proposatuko dira, lehenik eta behin, azkenurreko ariketan puntuaziorik handiena lortu duena, eta bigarrenik, aurreko ariketan puntuaziorik handiena lortu duena, eta, horrela, hautaketa prozesuko lehen ariketa gainditu dutenen zerrendara iritsi arte.

e) Soilik lehiaketa fasea existitzen den hautaketa prozesuetan, berdinketa sortuz gero, eta aurreko b) atalean ezarritakoa gorabehera, berdinketak jarraitzen badu ordena ezartzeko erreparatuko zaio, lehenengo eta behin, Amurrioko Udalean zerbitzuak denbora luzeagoz eman dituen izangaiari; bigarrenik, Euskal Administrazio Publikoan zerbitzuak denbora luzeagoz eman dituen izangaiari; hirugarrenik, beste administrazio publiko batzuetan zerbitzuak denbora gehiagoz eman dituenari; eta, azkenik, adinez nagusia den izangaiari.

HAMARGARRENA. GAINDITUTAKO IZANGAIEN ZERRENDAA.

1. Ariketak gainditu dituzten izangaien zerrenda argitaratzea.

Oposizio faseko proba bakoitza zuzentzen amaitu ondoren, epaimahaiak dagozkion kalifikazioak argitaratuko ditu Amurrioko Udalaren iragarkien taulan eta Amurrioko Udalaren webgunean (www.amurrio.eus), zerrenda hauekin:

- Barne sustapeneko txanda gainditu dutenen zerrenda.
- Desgaitasunen bat daukaten pertsonen txanda gainditu dutenen zerrenda.
- Gainerako izangaietatik gainditu dutenen zerrenda.

2. Hautatutako pertsonen zerrenda.

a) Hautaketa prozesua osatzen duten ariketen eta/edo merezimenduen kalifikazioa bukatuta, epaimahaiak hautatutako pertsonen zerrenda argitaratuko du, puntuazio ordenaren arabera; pertsona kopurua ezingo da izan deitutako plaza kopurua baino handiagoa, Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 32. artikuluan ezarritakoa dela bide; zerrenda hori korporazioko udalburutzara igorri izendapen proposamena formulatuko du. Aldi berean, azken saioko akta aginte horri igorriko dio, eta aktan agertu beharko dira puntuazio ordenaren arabera ariketa guztiak gainditu dituzten izangaietatik deitutako plazen kopurutik kanpo geratu direnak, hain zuzen ere plaza lortu duen norbait plazaz jabetzen ez den kasuetan baliatzeko eskusiboki; izangaiak azken zerrenda horretan sartzeak ez die inolako eskubide edo espektatibarik emango.

b) Aurreko zerrendak modu bereizian osatu beharko dira, nahitaezko hizkuntza eskakizuna daukaten plaza izan ala ez irizpidetzat hartuz.

c) Hautaketa prozesuan zehar, esan dugun moduan, tratamendu bereizia emango zaie txanda libretik iritsitako pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen, onarpen zerrendei, ariketetara deitzeari eta onartutakoen zerrendei dagokienez. Hala ere, prozesua bukatzean zerrenda bakarra egingo da, eta bertan hautaketa proba guztiak gainditu dituzten izangai guztiak jasoko dira, lortutako puntuazio osoaren arabera ordenatuta, zein txandetan parte hartu duten kontuan izan gabe, salbu eta barne sustapeneko txandako parte hartzaileak, haiek zerrenda propioa izango baitute. Zerrenda hori erabakigarria izango da destinoak eskatu eta esleitzeko.

d) Deitutako plaza kopurua handitu ahal izango da kasuan kasuko deialdiaren ondoren onartutako enplegu publikoaren eskaintzan jasotako plaza hutsen arabera, berariazko oinarrietan hala ezarri gero. Plaza kopurua handituz gero ALHAOn jakinaraziko da, alkatetza udalburutzaren ebazpen bidez; hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasun data esleituta daukaten plaza kopurua jakinaraziko da eta, nolanahi ere, oinarri hauen lehen zenbakian aurreikusitako onartutako izangaien zerrenda argitaratzeko izapidearen aurretik xedatu beharko da.

3. Lan poltsa.

Deialdiak ebatzi ondoren, lan poltsak sortuko dira udaleko zerbitzuak aldi batez emateko; kasuan kasuko deialdian hautatutako pertsonak karguaz jabetzeko dataren hurrengo egunean hasiko da lan poltsen indarraldia. Azken hautaketa prozesutik sortutakoak gailenduko dira aurretik egon daitezkeen besteen gainetik.

Lan poltsa horietan sartuko dira, lehenik eta behin, oposizio faseko ariketa guztiak gainditu dituzten eta deitutako plaza kopurua gainditzen duten izangaiak, oposizio fasea eta lehiaketa fasea batuz lortutako puntuazio ordenan. Jarraian, nahitaezko ariketa baztertzailer gehien gainditu dituzten izangaien zerrenda osatuko da (gutxienez oposizio faseko lehen ariketa gainditu badute), eta gainditutako ariketa horietan lortutako puntuazio osoaren ordenan.

Berdinketa egonez gero, 9.5 oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

4. Epaimahaien ebazpenak.

Epaimahai kalifikatzaileen ebazpenak lotesleak izango dira izendapena egin behar duen organoarentzat; nolanahi ere, aipatutako organoak ebazpenak berrikus ditzake, bat etorritik indarrean dagoen Administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearen Legearekin.

HAMAIKAGARRENA. AGIRIAK AURKEZTEA.

a) Agirien zerrenda.

Langile funtzionario bihurtzeko proposatutako izangaiek hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko deialdiaren oinarrietan eskatutako agiriak aurkeztu beharko dituzte udaleko Antolaketa eta Giza Baliabideen Kudeaketa Arloaren aurrean 20 eguneko epean, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen den unetik zenbatuta:

1. Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia, behar bezala konpultsatua.
2. Kargu publikoetan jarduteko desgaiturik ez dagoela eta administrazio publikoaren zerbitzutik at diziplina espedientearen bidez geratu ez dela dioen aitordua.
3. Administrazioaren zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasun zioen eraginpean ez egotea dioen aitordua.
4. Medikuen ziurtagiria, udaleko zerbitzu medikoek emandakoa, bete behar dituen funtzioak betetzea eragozten duten gaixotasunik, akats fisiko edo psikikorik ez izatea egiaztatzen duena; ondorio horietarako izangaiei dagokien azterketa medikoa egingo zaie, aipatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko, eta behar beste proba mediko egin ahalko dira hautaketa prozesuan zehar, eskusio medikoen zerrendara egokitzen diren egiaztatzeko, oro har hartuz. Medikuen ziurtagiriaren aurka jotzen bada, horiek egiteko oinarritzat erabili diren txosten medikoak erreklamazioa aztertuko duen kasuan kasuko organoaren esku jartzeko baimena emango dute izangaiek, beren ohore eskubidea ukitzen ez denean. Desgaitasunen bat daukaten izangaiek, gainera, kasuan kasuko plazaren funtzioak betetzeko gaitasun agiria ere aurkeztu beharko dute, Arabako Gizarte Zerbitzuen Ordezkaritzako Orientazio eta Balorazio Zentroak edo administrazio eskudunak emandakoa.
5. Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 43. artikularekin bat etorritik, lanpostuan sartzeko eskatzen den titulua, horren kopia konpultsatua edo titulua lortzeko eskubideak ordaindu izanaren frogagiria.
6. Kasuan kasuko deialdian eskatutako berariazko gainerako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko agiri bidezko justifikazioa.
7. NAN tamainako bi argazki.

b) Funtzionarioak.

Edozein administrazio publikotan langile funtzionario direnak salbuetsita egongo dira eta haien aurreko izendapena lortzeko dagoeneko frogatutako baldintzak eta betekizunak ez dituzte agiri bidez justifikatu beharko; dagokien ministerioaren, toki korporazioaren edo erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute, haien egoera eta zerbitzu orrian ageri den inguruabar oro egiaztatuz.

c) Epea ez betetzea.

Aipatutako epe barruan, eta nahitaezko kasuak salbu, proposatutako izangaiak ez badi-tuzte aurkezten deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak eta baldintzak betetzeari buruzko agiriak, edo agiri horiek edo medikuaren azterketa aztertuz gero ondorioztatzen bada baldintzaren bat edo eskatutako betekizunak ez direla betetzen, orduan izangaiak automatikoki baztertuko dira; ezingo dira kasuan kasuko lanpostuetan izendatu eta haien jardun guztiak ba-liogabetu egingo dira; bidenabar, hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidea faltsutzeagatik erantzukizuna eska dakieke. Kasu horretan, korporazioko alkatetzak izendapen proposa-mena egingo du hautaketa prozesuko ariketa guztiak gaingitu dituztenen artean aipatutako baliogabetzearen ondorioz deitutako plazen kopuruaren barruan sartzen diren izangaien alde. Hautaketa prozesu hau gaingitu duten pertsonen zerrendak baliagarriak izango dira bitarteko funtzionarioak izendatzeko indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan eta kategoria horietan gerta daitezkeen gainerako kontratazioetarako.

d) Desgaitasuna duten pertsonak.

Organo eskudunaren ziurtagiri bidez ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasun gradua egaiztatu behar dute.

HAMABIGARRENA. IZENDAPENA.

1. Izendapena.

Aipatutako agiriak aurkezteko epea amaitutakoan, proposatutako izangaiak karrerako funtzionario edo praktiketako funtzionario izendatuko dituzte. Iraunaldiari dagokionez, izen-dapenean ageri den datatik prestakuntza ikastaroa edo praktikaldia gaingitu eta karrerako funtzionario karguaz jabetu artekoa izango da.

2. Prestakuntza ikastaroa eta praktikaldia.

a) Plazak betetzeko deialdietan hala ezartzen denean eta, bereziki udaltzaingoen kidegoen deialdietan, izangaiak udalak komenigarritzat jotako prestakuntza edo bikaintasun ikastaro oro egitera behartuta egongo dira, beteko den plazaren berezko funtzioak betetzeko gaitetan be-harrezko gaitasuna edo ezagutzak lortzeko, hautaketa prozeduraren beste fase baten modura; nolanahi ere, prestakuntza ikastaroaren eta praktikaldiaren iraupen metatua ezingo da izan le-gez ezarritakoa baino luzeagoa, eta praktika eta prestakuntza aldia gaingitzen ez bada, deialdian aurreikusitako kalifikazio prozedurarekin bat etorritik, izangaia hautaketa prozesutik automatikoki kaleratuko da, eta karrerako funtzionario gisa izendatzeko izan dezakeen eskubide oro galduko du, bat etorritik Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legearen 28. artikularekin.

b) Hautatutako pertsonak aldezturik 12 hilabetez baino gehiagorik zerbitzua eman badu Amurrioko Udaleko postu berean, eta kasuan kasuko arloko arduradunak txostena positiboa eman badu, prestakuntza eta praktikaldia baliozkotu ahalko zaio.

c) Prestakuntzako hautaketa ikastaroan gai orokorrak zein bereziak ikasiko dira. Hautaketa ikastaroa bukatzean edo garatzen den bitartean izendatutako pertsonen praktikaldia ere egingo dute. Prestakuntza eta praktikaldia bukatutakoan, akademiako zuzendaritzak edo kasuan ka-suko arloak txostena emango du, praktikaldian egondako langile funtzionarioaren gaitasun eta egokitzapenari buruzkoa, plaza zuzen betetzeko beharrezko gaitasunei dagokienez; txostena hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari helaraziko zaio, eta epaimahaiak, txostena ikusita, fase hori gaingitu den ala ez ebatziko du; ondoren, aipatutako aldia gaingitu duten pertsonen aldeko izendapen proposamena igorriko dio alkatetza udalburutzari.

d) Prestakuntza ikastaroko edo praktikaldiko edozein unetan izangaiaren izendapena bertan behera utzi ahalko da izangaiak ez badiu betetzeko gaitasun edo egokitzapeneko beharrezko baldintzak. Horren haritik, proposamena akademiako zuzendaritzak edo atalak aurkeztuko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta horrek, txostena ikusita, izendapena bertan behera utzi behar den edo ez ebatziko du, eta kasuan kasuko proposamena alkatetza udalburutzara igorriko du.

e) Kausa justifikaturik gabe lanpostuan hasten ez denak praktikaldiko funtzionario gisa izendatzeari uko egiten diola ulertuko da.

f) Izendapenak izangaiei jakinaraziko zaizkie eta iragarkien taulan, ALHAOn eta Amurrioko Udaleko orrian argitaratuko dira (www.amurrio.eus).

g) Izangaien behin betiko izendapena.

Izangaien behin betiko kalifikazioa eta hurrenkera ordena hautaketa ikastaroan lortutako puntuazioak ebatziko du, lehiaketa-oposizio fasean lortutakoari batuz; gainditzeko ezinbesteko betekizuna izango da praktikaldian gai aitorpena jasotzea.

Izendapenak interesdunei jakinaraziko zaizkie eta ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratuko dira.

HAMAHIRUGARRENA. LANPOSTUAZ JABETZEA ETA LANPOSTUETARA ATXIKITZEA.

a) Plazaz jabetzea.

Udal organo eskudunak proposamena onartu ondoren, behin betiko izendatutako pertsonak lanpostuaz jabetu beharko dira, eta apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan eskatutako betekizuna bete beharko dute, izendapena jakinarazi zaien egunetik hurrengo hogeita hamar eguneko epean.

Hala ere, udalak ezarritako egunean edo egunetan jabetuko dira lanpostuaz praktiketako funtzionario gisa.

Aipatutako epean kausa justifikaturik gabe lanpostuaz jabetzen ez direnek karguari uko egiten diotela ulertuko da, eta haien eskubide guztiak bertan behera geldituko dira. Kasu horretan, korporazioko udalburutzak izendapen proposamena egingo du hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituztenen artean aipatutako uko egitearen ondorioz deitutako plazen kopuruaren barruan sartzen diren izangaien alde.

b) Lanpostuetara atxikitzea.

Deitutako plazez jabetu direnak lanpostu hutsetara atxikitzea Langileen Arloak egingo du, lanpostuen zerrendan lanpostu bakoitzari eskatutako betekizunak betetzen dituzten pertsonen artean.

HAMALAU GARRENA. AZKEN ARAUAK.

Erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzietarako ordena jurisdikzionaletan egin ahalko da, bi hilabeteko epea ALHAOn argitaratzen denetik, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoarekin, administrazio xedapen orokorra delako. Interesdunek deialdietatik eta epaimahaien jardunetik eratorritik diren administrazio egintzak aurkaratu ahalko dituzte Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen ezarritako kasuetan eta forman.

II. ERANSKINA**BERARIAZKO OINARRIAK****LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.**

Deialdi honen helburua da udal korporazioko funtzionarioen aurrekontu plantillan hutsik dauden lanpostuak jabetza araubidean hornitzea, 2018ko eta 2019ko ekitaldietarako onartutako enplegu publikoaren eskaintzan jasotakoak.

PLAZA	ZKIA.	AZPITALDEA	ESKALA	AZPIESKALA	HE	DERRIGORREZKOA	TXANDA
Administrari laguntzailea	3	C2	Administrazio Orokorra	Laguntzailea	2	Bai	Txanda libre 1 Desgaitasuna duten pertsonen erreserbatuta
Ofizioen ofiziala, igeltseroa	1	C2	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	1	Ez	Txanda libre
Administraria	1	C1	Administrazio Orokorra	Administraria	2	Bai	Barne sustapenerako gordea
Udaltzain lehena	1	C1	Administrazio Berezia	Zerbitzu Berezia	2	Bai	Barne sustapenerako gordea
Gizarte langilea	1	A2	Administrazio Berezia	Teknikoa	3	Bai	Txanda libre

BIGARRENA. BERARIAZKO OINARRIAK.

Atxikitako eta gehitutako kasuan kasuko eranskinetan jaso dira Amurrioko Udaleko karrerako funtzionario gisa hasteko hautaketa prozesuen oinarri orokorretan ezarritakoa osatzen duten berariazko oinarriak; bertan ezarriko diren deialdia, hautaketa prozedurak edo sarbide sistemak arautuko dituzte.

1. AZTERKETA EGITEKO ESKUBIDEENTASAK.

Eskabideak aurkezteko garaian indarrean dagoen zerga ordenantzak arautuko ditu.

Izangaiek deialdi bakoitzeko ordaindu beharko duten kuota eskuratu nahi duten lanpostuaren taldearen arabera ezarriko da, taula honi jarraiki:

A1 eta A2 taldea:	20,00 euro
C1, C2 eta AP taldeak:	10,00 euro

Eskabidea egiteko unean langabezian dauden izangaiek ehuneko 50eko hobaria izango dute. Beraz, enplegu txartela aurkeztu beharko dute, langabezian daudela egiaztatzeko.

Azterketa egiteko eskubideak eskabideak aurkezteko epearen barruan ordaindu beharko dira, diru sarrera edo transferentzia bat eginez LABORAL KUTXA entitatean, Amurrioko Udalaren izenean, banku kontu zenbaki honetara ES29 3035 0089 18 0890020005. Dirua sartzera izangaiaren izena eta bi deiturak, NAN zenbakia eta eskuratu nahi duen plaza jasota utzi beharko dira.

2. DEITUTAKO PLAZAK.**ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN 3 PLAZA**

Lehenengoa. Deitutako plazak.

Administrari laguntzaileen 3 plaza, derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin, C sailkapen taldekoa, C2 azpitaldekoa, Administrazio Orokorren eskalako, laguntzaile azpieskala.

Txanda libre, lehiaketa-oposizio bidez.

Bi sarbide orokorreko modalitatean eta beste bat desgaituentzat gordeta.

Bigarrena. Berariazko betekizunak.

Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2.

ITTxartela: Word aurreratua, Excel aurreratua, Access oinarrizkoa, Internet oinarrizkoa eta Outlook.

Desgaituentzat gordetako plazan aurkeztu diren izangaiek administrazio organo eskudunaren ziurtagiria izan behar dute, ehuneko 33ko desgaitasun gradua edo handiagoa aitortuz.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauexek izango dira kideak:

Presidentetza: Saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Kideak:

- Karrerako hiru funtzionario.
- HAEE-IVAPeko teknikari bat, euskara proba ebaluatzeko.

Idazkaria: Udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Hautaketa sistema: Oposizio-lehiaketa libre.

A) Oposizio fasea.

1. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Epaimahaiak gai zerrendaren harira proposaturiko zenbait gai erantzun beharko dira idatziz, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 4 puntu emango dira gehienez; gaitzetzeko, 2 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Lanpostuko zereginei buruzko ariketari ekin baino lehenago, epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat edo batzuk garatu beharko dira, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 6 puntu emango dira gehienez; gaitzetzeko, 3 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: Euskara azterketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Bigarren hizkuntza eskakizuna daukaten izangaien euskara maila zehazteko azterketak egin beharko dira.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaiek salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatze azterketarik egin beharko, baita Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatze azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaiek ere.

b) Lehiaketa fasea.

Oposizio fasea gaitzitzen duten izangaiek agiri bidez eta modu fede emailean egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, horretarako emandako epean, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

1. eta bakarra: Esperientzia profesionala.

Izangaiek gehienez ere 4,5 puntu lor ditzakete atal honetan.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan eta haren kategoriarekin administrazio publikoan lan kontratuaren bitartez, funtzionario izendapenez edo administrazio kontratuaren bidez emandako zerbitzuak. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,09 puntu hileko.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,045 puntu hileko.

c) Praktikaldia.

Lehiaketa-oposizioan punturik gehien lortu dituzten hiru izangaiek praktiketan jardun beharko dute aldi batez, sei hilabetez gehienez ere. Praktiketako jardunaldi hau hautaketa prozedurako beste fase bat izango da.

Fase honetan izendatuko diren izangaia praktiketako funtzionario izendatuko dituzte; indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango dute, eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaie, hain zuzen ere funtzionario diren langileei aplikatzen zaien araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko faseetako batean deskalifikatu arte.

Ebaluazio prozedura etengabea egingo da praktikaldian zehar eta emaitzako kalifikazioa gai edo ez gai izango da; hautaketa prozesuko fase hori gainditzeko "gai" kalifikazioa lortu behar da.

Izangaiek plazaren berezko egitekoetan jardutean erakusten duten gaitasuna baloratuko da.

Praktikaldian gutxienez bi ebaluazio txosten egingo dira, eta bigarrenean jasotzen denak eragingo du izangaiaren gaitasunaren inguruko adierazpena praktikaldia amaitutakoan.

Praktikaldia gainditzen ez duten izangaia, hau da, praktikaldiaren ebaluazioan gai kalifikazioa lortzen ez dutenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki; gainera karre-rako funtzionario izendatzeko eduki dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai baten praktikaldia amaitutakoan organo ebaluatzaileak beharrezko informazioa eskatuko dio haren arloko buruari eta gero izangaiaren gaitasunari eta prestutasunari buruzko txostena egingo du. Txostena epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio eta hark izangaia praktikaldia gainditu duen ala ez ebartziko du; hala, izendapen proposamena bidaliko du alkatetzara.

Praktikaldian dagoen izangai baten gaitasuna edo aprobetxamendua behar bezalakoa ez dela pentsatuz gero, haren izendapena praktikaldiko edozein unetan baliogabetu ahal izango da. Horretarako, izangaia lanean ari den arloko arduradunak proposamena bidali beharko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertu ondoren, izendapena baliogabetu behar den ala ez ebartziko du eta bidezkoa deritzon proposamena bidaliko dio alkatetza-udalburutzari.

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEEN 3 PLAZEN GAI ZERRENDA

1. Espainiako Konstituzioa. Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-38 artikulua).

2. Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuetan aurrea hartzekoa. III. kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak (14-29 artikulua) V. Kapituluak. Langileen kontsulta eta parte hartzea (33-40 artikulua).

3. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragin-garrirakoa. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (3/2007 Lege Organikoaren 1-19 eta 51-61 artikulua; 1/2004 Lege Organikoaren 1. eta 2. artikulua).

4. Jarduteko gaitasuna eta administrazio prozeduran interesa duten pertsonen kontzeptua (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3-12 artikulua).

5. Administrazio publikoen jardura: Pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak, bereziki administrazioarekin elektronikoki harremanak izateko eskubideari eta betebeharrari dagokienez. Prozeduretako hizkuntza. Dokumentuak jaulkitzea. Terminoak eta epeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 13-15 artikulua eta 26-33 artikulua).

6. Erregistro Elektronikoko Orokorra. Dokumentuen sarrera eta irteerak. Dokumentuak administrazio publikoan aurkeztea. Dokumentuak artxibatzea. Pertsonen kolaborazioa administrazioarekin. Pertsonen agerraldia. Izapideen erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16-20 artikulua).

7. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoan baliabide elektronikoak erabiliz jarduteko arautegia onartzen duena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua). Administrazio espediente elektronikoa (46-53). Dokumentuen artxibo elektronikoa (54-55 artikulua).

8. Administrazio prozedura erkidea: Prozeduran interesdun direnen eskubideak. Prozeduraren faseak: aurretiazko jarduketak, behin-behineko neurriak, hasiera moduak, eskabidearen edukia, eskabidea zuzentzea eta hobetzea, erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa. Prozeduraren antolamendua. Jarraibideak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53-83 artikulua).

9. Ebazteko betebeharra. Ebazteko gehieneko epea etetea. Ebazteko gehieneko epea luzatzea. Administrazio isiltasuna. Prozedura bukatzea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21-25 artikulua eta 84-96 artikulua).

10. Administrazio egintza. Eskakizunak. Egintzen eraginkortasuna. Jakinarazpena eta publikizitatea. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Kontserbatzea, bihurtzea eta baliozkotzea (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 34-52 artikulua).

11. Administrazio egintzak berrikustea. Ofizioz berrikustea. Administrazio errekursoak. Printzipio orokorrak. Gora jotzeko errekursoa. Berraztertzeko errekursoa. Berrikuspen errekurso berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 106-126 artikulua).

12. Administrazio publikoaren eta agintarien erantzukizuna eta administrazioen zerbitzura dauden langileena. Erantzukizun mota; administrazio publikoaren ondare erantzukizunaren kontzeptua eta printzipio orokorrak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32-37 artikulua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 81., 82.5, 86.5, 91. eta 92. artikulua).

13. Udal antolamendua. Oinarrizko organoak: alkatetza, alkateordea, osoko bilkura eta gobernu batzordea. Organo osagarriak. Eskumenak (Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20-26 artikulua; Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123., 124., 134., 135., 136., 137. artikulua).

14. Tokiko kide anitzeko organoen funtzionamendua: erabaki eta saioen araubidea. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46., 47., 51. 52. artikulua; Toki araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 46-52 eta 54. artikulua).

15. Toki erakundeen arautzeko ahala: ordenantzak, arautegiak eta bandoak. Arauak egin eta onartzeko prozedura. Arau haustek (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49., 84., 84 bis, 84 hirugarrena, 139. eta 140. artikulua).

16. 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen. Herritarren udal errolda (15-18 artikulua). 1690/1986 Errege Dekretua, uztailaren 11koa, Toki Erakundeen Populazioari eta Mugaketari buruzko Araudia onartu zuena: udal errolda (53-80 artikulua).

17. Sektore publikoko kontratuak: kontratu motak, formak eta esleipen prozedurak. (Sektore Publikoko Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1-3, 12-18, 24-27, 116-120 eta 131. artikulua; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

18. Funtzio publikoa: langile funtzionarioak, langile lan kontratudunak eta behin-behineko langile lan kontratudunak, toki administrazioaren funtzionarioak, estaturako gaikuntzarekin. Eskubideak eta betebeharrak; Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 8-20, 52., 53. eta 54. artikulua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 59-68 artikulua; Toki Araubidearen Oinarriak Arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 eta 92 bis.1 artikulua; Administrazioaren zerbitzuko pertsonalaren bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 1. eta 3. artikulua.

19. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarena (19/2013 Legearen 12-20 artikulua).

20. Datu pertsonalen babesa: erregulazioa eta definizioak. Datuen babesaren printzipioak. Pertsonen eskubideak (Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 1-18 artikulua).

OFIZIOEN OFIZIAL PLAZA BAT, IGELTSEROA

Lehenengoa. Deitutako plaza.

Ofizioen ofizial plaza bat, igeltseroa; lehen hizkuntza eskakizuna, ez derrigorrezkoa; C sailkapen taldea, C2 azpitaldea, Administrazio Berezia, Zerbitzu Berezien azpieskala.

Txanda librea, lehiaketa-oposizio bidez.

Bigarrena. Berariazko betekizunak.

Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua edo baliokidea.

B gidabaimena.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauexek izango dira kideak:

Presidentetza: Saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Kideak:

— Karrerako hiru funtzionario.

— HAAE-IVAPeko teknikari bat, euskara proba ebaluatzeko.

Idazkaria: Udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Hautaketa sistema: Oposizio-lehiaketa librea.

A) Oposizio fasea.

1. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Epaimahaiak gai zerrendaren harira proposaturiko zenbait gai erantzun beharko dira idatziz, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 3,4 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 1,7 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Lanpostuko zereginetako buruzko ariketari ekin baino lehenago, epaimahaiak proposatutako kasu praktikoa bat edo batzuk garatu beharko dira, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 5,3 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 2,65 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: Euskara azterketa. Borondatezkoa.

Euskararen 1. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba izango da.

Eskabidean ariketa hori egiteko asmoa adierazi duten izangaiek baino ezingo dute proba hori egin.

1. hizkuntza eskakizuna egiaztatuz gero, 1,3 puntu emango dira.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaiak salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egin beharko, baita Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaiak ere.

B) Lehiaketa fasea.

Oposizio fasea gaingitzen duten izangaiek agiri bidez eta modu fede emailean egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, horretarako emandako epean, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

1. eta bakarra: Esperientzia profesionala.

Izangaiek gehienez ere 4,5 puntu lor ditzakete atal honetan.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak, C2 taldeko kategoria edo talde profesionala, lan kontratuaren bitartez, funtzionario izendapenez edo administrazio kontratuaren bidez. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,09 puntu hileko.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,045 puntu hileko.

c) Praktikaldia.

Lehiaketa oposizioan punturik gehien lortu dituen izangaiak praktiketan jardun beharko du aldi batez, sei hilabetez gehienez ere. Praktiketako jardunaldi hau hautaketa prozedurako beste fase bat izango da.

Fase honetan izendatuko den izangaia praktiketako funtzionario izendatuko dute; indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaio, hain zuzen ere funtzionario diren langileei aplikatzen zaien araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko faseetako batean deskalifikatu arte.

Ebaluazio prozedura etengabea egingo da praktikaldian zehar eta emaitzako kalifikazioa gai edo ez gai izango da; hautaketa prozedurako hurren fasera pasatzeko "gai" kalifikazioa lortu behar da.

Izangaiek plazaren berezko egitekoetan jardutean erakusten duten gaitasuna baloratuko da.

Praktikaldian gutxienez bi ebaluazio txosten egingo dira, eta bigarrenean jasotzen denak eragingo du izangaiaren gaitasunaren inguruko adierazpena praktikaldia amaitutakoan.

Praktikaldia gaingitzen ez duten izangaiak, hau da, praktikaldiaren ebaluazioan gai kalifikazioa lortzen ez dutenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki; gainera karre-rako funtzionario izendatzeko eduki dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai baten praktikaldia amaitutakoan organo ebaluatzaileak beharrezko informazioa eskatuko dio haren arloko buruari eta gero izangaiaren gaitasunari eta prestutasunari buruzko txostena egingo du. Txostena epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio eta hark izangaiak praktikaldia gaingitu duen ala ez ebatziko du; hala, izendapen proposamena bidaliko du alkatetzara.

Praktikaldian dagoen izangai baten gaitasuna edo aprobetxamendua behar bezalakoa ez dela pentsatuz gero, haren izendapena praktikaldiko edozein unetan baliogabetu ahal izango da. Horretarako, izangaia lanean ari den arloko arduradunak proposamena bidali beharko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertu ondoren, izendapena baliogabetu behar den ala ez ebatziko du eta bidezkoa deritzon proposamena bidaliko dio alkatetza-udalburutzari.

OFIZIOEN OFIZIAL PLAZAREN (IGELTSEROA) GAI ZERRENDAA

1. Udal antolamendua. Oinarrizko organoak: alkatetza, alkateordea, osoko bilkura eta go-bernu batzordea. Organo osagarriak. Eskumenak (Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20-26 artikulua; Toki erakundearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123., 124., 134., 135., 136., 137. artikulua).

2. Tokiko kide anitzeko organoen funtzionamendua: erabaki eta saioen araubidea. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46., 47., 51. 52. artikulua; 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 46-52 54. artikulua). Tokiko kide anitzeko organoen funtzionamendua: erabaki eta saioen araubidea. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46., 47., 51. 52. artikulua; Toki araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 46-52 eta 54. artikulua).

3. Toki erakundearen arautzeko ahala: ordenantzak, arautegiak eta bandoak. Arauak egin eta onartzeko prozedura. Arau haustek (Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49., 84., 84 bis, 84 hirugarrena, 139. eta 140. artikulua).

4. Funtzio publikoa: langile funtzionarioak, langile lan kontratadunak, behin-behineko langile lan kontratadunak, toki administrazioaren funtzionarioak, estatuturako gaikuntzarekin. Eskubide eta betebeharrak. (Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartu zuen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 8-20, 52., 53. eta 54. artikulua; Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 59-68 artikulua; Toki Araubidearen Oinarriak Arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 92 eta 92 bis.1 artikulua).

5. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragin-garrirakoa. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (3/2007 Lege Organikoaren 1-19 eta 51-61 artikulua; 1/2004 Lege Organikoaren 1. eta 2. artikulua).

6. Amurrio eta bertako Administrazio Batzarrak. Kale izendegia.

7. 485/1997 Errege Dekretua, apirilaren 14koa, segurtasun eta osasun arloan seinalizazioa jartzeko gutxieneko xedapenak jasotzen dituen. I., II., III., IV., V., VI. eta VII. eranskinak.

8. 773/1997 Errege Dekretua, maiatzaren 30ekoa, langileek norbera babesteko ekipamendua erabiltzeari buruzkoa laneko osasunaren eta segurtasunaren arloko gutxieneko xedapenei buruzkoa. I., II., III. eta IV. eranskinak.

9. Igeltsero lanaren tresnak eta erabilgarriak. Makineria, baliabide osagarriak eta aldamioak eraikuntzan. Erabili eta zaintzeko deskribapen eta kontrola, muntatzea, elementu osagarriak, mantentze lanak eta araudia.

10. Eraikuntzan erabilitako materialak Ezaugarriak, sailkapena eta deskribapena.

11. Zuinketak, neurketak eta planoen interpretazioa: egiteko moduak, materialak, tresnak eta lanabesak, errendimenduak. Eskala, unitateak eta neurtzeko sistemak eta azalera eta bolumen kalkulua. Geometria eta aritmetika.

12. Hormigoizko zolak eta zolatzeak: motak eta erabilerak, kofratuak, egiteko moduak, materialak, tresnak eta lanabesak.

13. Zoladurak eta alikatatuak: Lanen ordena, erabilitako materialak eta errendimendua.

14. Paretak itzumatzea, estaldurak, estaltzea, zarpiatzea, baliogabetzea eta luzitua; motak eta erabilerak, egiteko moduak, materialak, tresnak eta lanabesak.

15. Elementu horizontalak eta inklinatuak, eskailerak, sabai aizunak, forjatuak, estalkiak, teilatuak eta tximiniak: motak eta erabilerak, kofratuak, egiteko moduak, materialak, tresnak eta lanabesak.

16. Elementu bertikalak, murrak eta trenkadak: motak eta erabilerak, kofratuak, egiteko moduak, materialak, tresnak eta lanabesak.

17. Euri urak eta ur beltzak sareetan biltzea eta askatzea, estolda zuloak, kutxatilak eta putzuak: motak eta materialak, egiteko moduak, tresnak eta lanabesak.

18. Isolamendua, iragazgaiztea, hezetasunak eta filtrazioak.

19. Udal hiri altzariak, bideak eta espaloiak eta eraikinak zaintzea eta mantentzea. Irizpideak eta lehentasunak.

20. Neurtzeko irizpideak eta egiten ari diren eta bukatutako obren balorazioa. Obrari dago-kion aurrekontu xehatua eta partidak.

GIZARTE LANGILEAREN PLAZA 1

Lehen. Deitutako plaza.

Gizarte langileen plaza 1, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin, A sailkapen taldekoa, A2 azpitaldekoa, Administrazio Berezia eskalako, azpieskala teknikoa.

Bigarrena. Berariazko betekizunak.

Titulazioa: Gizarte lanaren graduko unibertsitate titulua edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 3.

Gidatzeko baimena B.

Hirugarrena. Epaimahai Kalifikatzailea.

Hauexek izango dira kideak:

Presidentetza: Saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Kideak:

— Karrerako hiru funtzionario.

— HAEE-IVAPeko teknikari bat, euskara proba ebaluatzeko.

Idazkaria: Udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Hautaketa sistema: Oposizio-lehiaketa libre.

A) Oposizio fasea.

1. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Epaimahaiak gai zerrendaren harira proposaturiko zenbait gai erantzun beharko dira idatziz, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 4 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 2 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Lanpostuko zereginei buruzko ariketari ekin baino lehenago, epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat edo batzuk garatu beharko dira, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 6 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 3 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: Euskara azterketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Euskararen 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba izango da.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaia salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egin behar, baita Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaia ere.

B) Lehiaketa fasea.

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiek agiri bidez eta modu fede emailean egiaztatu behar dituzte merezimenduak, horretarako emandako epean, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

Lan esperientzia.

Izangaiek gehienez ere 3 puntu lor ditzakete atal honetan.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan eta haren kategoriarekin administrazio publikoan lan kontratuaren bitartez, funtzionario izendapenez edo administrazio kontratuaren bidez emandako zerbitzuak. Gehienez ere 3 puntu, 0,06 puntu hileko.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 3 puntu, 0,03 puntu hileko.

2. Prestakuntza osagarria.

Izangaiek lortu nahi duten postuaren profilarekin lotutako gaiei buruzko prestakuntza osagarriatik gehienez ere 1,5 puntu lortu ahalko dituzte atal honetan.

Parte hartzeko betekizun gisa eskatzen den titulazioaz gain beste titulazio akademiko ofizial batzuk izatea baloratuko da, baita unibertsitateek edo unibertsitate eskolek irakatsitako unibertsitateen titulu propioak izatea ere, betiere deitutako plazako funtzioak betetzen zuzenean eta berariaz laguntzen badute.

• Master edo graduondokoak izateagatik:

15 eta 29 kreditu artean edo 150 eta 290 ordu artean	0,15 puntu
30 eta 59 kreditu artean edo 300 eta 590 ordu artean	0,25 puntu
60 eta 120 kreditu artean edo 600 eta 1.200 ordu artean	0,50 puntu

• Eskatutako titulazioaz gain postuarekin lotutako beste titulazio batzuk izatea, lizentziatura, diplomatura edo gradu titulua (Goi mailako Hezkuntzako Kalifikazioen Espainiako Esparruko 2. maila). 0,50 puntu.

Unibertsitate ikasketa berberen ziklo desberdinak gainditu izana egiaztatzen bada, soilik bat baloratuko da.

• Lanpostuarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikastaroak, 0,5 puntu gehienez.

Atal horretan epaimahaiak soilik hartuko ditu kontuan funtzionarioen prestakuntza eskola ofizialek (Administrazio Publikoaren Institutu Nazionala, HAEE-IVAP, eta abar), Gizarte Laneko Diplomatuaren Elkargo Ofizialak, beste entitate publiko batzuek edo udalak berak antolatu edo irakatsitako prestakuntza jarduerak, eta ezarritako denboran aurkeztu badira, behar bezala egiaztatu badira eta iraupena justifikatu bada, ordu kopuru osoa berariaz adieraziz.

Titulazio akademiko bat lortzeko ikasketa plan baten parte den prestakuntza ez da baloratuko.

Prestakuntza ikastaroak ez dira kontuan hartuko ikastaro horien iraupena egiaztagirietan berariaz adierazten ez bada.

Gutxienez 10 orduko ikastaroak baloratuko dira, eta 10 orduko 0,001 puntu emango dira.

c) Praktikaldia.

Lehiaketa-oposizioan punturik gehien lortu dituen izangaiak praktiketan jardun beharko du aldi batez, sei hilabetez gehienez ere. Praktiketako jardunaldi hau hautaketa prozedurako beste fase bat izango da.

Fase honetan izendatuko den izangaia praktiketako funtzionario izendatuko da; indarreko legerian ezarritako ordainsariak jasotzeko eskubidea izango du, eta Gizarte Segurantzaren alta emango zaio, hain zuzen ere funtzionario diren langileei aplikatzen zaien araubidean.

Egoera horretan iraungo dute izendapen dekretuan adierazitako egunetik hasi eta lanpostua jabetzan hartu arte, edo aurreko faseetako batean deskalifikatu arte.

Ebaluazio prozedura etengabea egingo da praktikaldian zehar eta emaitzako kalifikazioa gai edo ez gai izango da; hautaketa prozesuko fase hori gaingintzeko "gai" kalifikazioa lortu behar da.

Izangaiek plazaren berezko egitekoetan jardutean erakusten duten gaitasuna baloratuko da.

Praktikaldian gutxienez bi ebaluazio txosten egingo dira, eta bigarrenaren jasotzen denak eragingo du izangaiaren gaitasunaren inguruko adierazpena praktikaldia amaitutakoan.

Praktikaldia gaingintzen ez duten izangaiak, hau da, praktikaldiaren ebaluazioan gai kalifikazioa lortzen ez dutenak hautaketa prozesutik kanpo geratuko dira automatikoki; gainera karre-rako funtzionario izendatzeko eduki dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

Izangai baten praktikaldia amaitutakoan organo ebaluatzaileak beharrezko informazioa eskatuko dio haren arloko buruari eta gero izangaiaren gaitasunari eta prestutasunari buruzko txostena egingo du. Txostena epaimahai kalifikatzaileari bidaliko zaio eta hark izangaiak praktikaldia gaingintu duen ala ez ebartziko du; hala, izendapen proposamena bidaliko du alkatetzara.

Praktikaldian dagoen izangai baten gaitasuna edo aprobetxamendua behar bezalakoa ez dela pentsatuz gero, haren izendapena praktikaldiko edozein unetan baliogabetu ahal izango da. Horretarako, izangaia lanean ari den arloko arduradunak proposamena bidali beharko dio hautaketa prozesuko epaimahai kalifikatzaileari eta hark, proposamena aztertu ondoren, izendapena baliogabetu behar den ala ez ebartziko du eta bidezkoa deritzon proposamena bidaliko dio alkatetza-udalburutzari.

GIZARTE LANGILEAREN PLAZAREN GAI ZERRENDAA

1. Espainiako Konstituzioa (I). Oinarrizko eskubide eta eginbeharrak (10-55 artikulua).
2. Udal antolamendua. Oinarrizko organoak: alkatetza, alkateordea, osoko bilkura eta gobernu batzordea. Organo osagarriak. Eskumenak (Toki araubidearen oinarriak dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20-26 artikulua; Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123., 124., 134., 135., 136., 137. artikulua).
3. Tokiko kide anitzeko organoen funtzionamendua: erabaki eta saioen araubidea. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki araubidearen oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46., 47., 51. 52. artikulua; Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testuategina onetsi duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuko 46-52 eta 54. artikulua).
4. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena. Langile motak (8-13 artikulua). Enplegatu publikoen eskubideak eta betebeharrak. Enplegatu publikoen jokabide kodea (14-54 artikulua). Zerbitzu harremana eskuratzea eta galtzea (55-68 artikulua).
5. 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duena. Lanpostuak hornitzea eta mugikortasuna (78-84 artikulua). Administrazio egoerak (85-92 artikulua). Diziplina araubidea (93-98 artikulua).
6. Administrazio prozedura (I). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenarena. Xedapen orokorrak (1-2 artikulua). Prozeduran interesdun direnak (3-12 artikulua). Jarduketa arau orokorrak (13-28 artikulua). Epe mugak eta epeak (29-33 artikulua).
7. Administrazio prozedura (II). 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenarena. Administrazio egintzen betekizunak (34-36 artikulua). Egintzen eraginkortasuna (37-46 artikulua). Deuseztasuna eta deuseztatgarritasuna (47-52 artikulua).
8. Administrazio prozedura erkidea: Prozeduran interesdun direnen eskubideak. Prozeduraren faseak: aurretiazko jarduketak, behin-behineko neurriak, hasiera moduak, eskabidearen edukia, eskabidea zuzentzea eta hobetzea, erantzukizunpeko adierazpena eta komunikazioa. Prozeduraren antolamendua. Instrukzioa (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53-83 artikulua).
9. Sektore publikoko kontratuak. Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Sektore publikoko kontratuei buruzko xedapen orokorrak (28-43 artikulua).
10. Datuen babesa. Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa. Xedapen orokorrak (1-3 artikulua). Datuak babesteko printzipioak (4-10 artikulua). Pertsonen eskubideak (11-18 artikulua).
11. Berdintasun politikak. Printzipio orokorrak eta tutoretza. Politika publikoak: printzipio orokorrak (3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorrerako; 3-22 artikulua). Euskal Administrazio Publikoen esparruko neurriak (Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako, 18-22 artikulua).

12. Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuetan aurrea hartzekoa. III kapitulua. Eskubideak eta betebeharrak (14-29 artikulua) V. Kapituluak. Langileen kontsulta eta parte hartzea (33-40 artikulua).

13. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea (1-58 artikulua).

14. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (1-34 artikulua).

15. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa (1. eranskina eta 3. eranskina).

16. 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu zituen.

17. 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, mendetasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala sustatzeari eta haiek zaintzeari buruzkoa (1-31 artikulua).

18. Diputatuen Kontseiluaren 36/2014 Foru Dekretua, uztailaren 22koa, arautzen duena mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere (43-89 artikulua).

19. Diputatuen Kontseiluaren 39/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1koa, arautzen dituena autonomiaren aldeko eta mendekotasunari arreta eskaintzeko sistemako prestazio ekonomikoak Araban: mendekoak familia barruan zaintzeko eta zaintzaile ez profesionalak laguntzeko prestazio ekonomikoak, laguntza pertsonalaren prestazio ekonomikoak eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoak.

20. Foru Gobernu Kontseiluaren 31/2020 Foru Dekretua, irailaren 29koa, onespina ematen diona Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen dituen zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzeari.

21. Bioetikaren printzipioak. Diputatuen Kontseiluaren 14/2011 Foru Dekretua, martxoaren 1koa; honen bidez, Arabako Lurralde Historikoan Gizartegintzan etika batzordeak sortzeko eta kreditatzeko modua arautzen da.

22. Tresna tekniko komunak: 353/2013 Dekretua, maiatzaren 28koa, Gizarte zerbitzuen euskal sistemaren fitxa sozialari eta gizarte zerbitzuen euskal sistemaren gizarte diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa (1-4 artikulua) eta 385/2013 Dekretua, uztailaren 16koa, Gizarte Bazterkeria Balioesteko Tresna onartzen duena (1-6 orriak).

23. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (1-44 eta 61-69 artikulua).

24. 148/2007 Dekretua, irailaren 11koa, etxeko eremuan tratatu txarren biktimak diren emakumeen harrerarako baliabideak arautzen dituena.

25. Tratatu txarren biktimei arreta emateko erakunde arteko koordinazioa: Etxean tratatu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumei laguntza hobea emateko erakunde arteko II. Akordioko jardun protokoloa.

26. Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2017 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, onartzen duena lurralde historiko honetako gizarte zerbitzuen foru sareko adinekoren zentroetako oinarritzko estatutua.

27. 11/2016 Legea, uztailaren 8koa, bizitzaren amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzkoa.

28. 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartu zuena.

29. Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Konbentzioa berresteko tresna, New Yorken egin zena 2006ko abenduaren 13an (1-34 artikulua).

30. Gobernu Kontseiluaren 10/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, onesten duena dibertsitate funtzionala dutenentzako Arabako Lurralde Historikoko eguneko egoitza arretako zentroen eta zentro okupazionalen oinarritzako estatutua.

31. Etika esku hartze sozialetan. Printzipioak eta balioak. Intimitatea, konfidentzialtasuna, sekretu profesionala. Gatazka etikoak.

32. Gizarte lanaren kode deontologikoa.

33. Esku hartzeko ereduak gizarte lanean. Pertsonengan zentratutako arreta integralaren ereduak.

34. Kasuen kudeaketa Gizarte Zerbitzuetan.

35. Banakako eta familiako gizarte lana: gizarte esku hartzearen metodologia.

36. Gizarte lanaren teknikak: elkarrizketa eta etxera bisita egitea.

37. Txosten soziala. Kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuenak.

38. Etxean eta haien inguruan zaintzea mendekotasuna duten pertsonak, desgaituak, gaixotasun mentala daukaten pertsonak. Zaintzak zaintzailearen osasunean, ongizatean eta komunitatean parte hartzean dituen ondorioak. Gizarte zerbitzuetatik zaintzaileei emandako babesak.

39. Taldean lan egitea eta diziplinartekotasuna gizarte zerbitzuetan bigarren mailako arretan. Gizarte lanaren figura talde horietan. Esku hartzeko esparruak, helburuak edo funtzioak.

40. Bizitza independenteari laguntzeko ereduak Araban.

41. Arreta pertsonalizatuko plana (APP) prestatzea mendekotasuna duten pertsonetan, desgaitasuna duten pertsonetan, gaixotasun mentala duten pertsonetan eta babesgabatasun egoeran dauden pertsona helduetan. Esku hartzea egiteko eta jarraipena egiteko prozedura. Esku hartzen duten pertsona eta profesionalak. Profesional erreferenteak.

42. Haurrak eta nerabeak babesteko eta arreta emateko esparru juridikoa. 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko (48-85 artikulua). 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (1. kapitulua: 2. eta 4. artikulua eta 4. kapitulua: 25. eta 26. artikulua).

43. Haurrak eta nerabeak babesteko eta arreta emateko esparru juridikoa. Jarduketak haurren babesgabatasunetik bakarrik dauden adingabe atzerritarrek. 2393/2004 Errege Dekretua, abenduaren 30koa, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren Arautegia onartu zuena, Espainian dauden atzerritarren eskubideei eta betebeharreari buruzkoa, eta horien gizarteratzeari buruzkoa (VIII. Titulua). Idazkariordetzaren 2014ko urriaren 13ko Ebazpena, bakarrik dauden adingabe atzerritarren gaineko jardura jakin batzuei buruzko esparru protokoloa onartzeko akordioa argitaratu zuena (I., II., VI. eta VII. kapituluak).

44. 131/2088 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerarako baliabideak arautuko dituen (I. Titulua: 1-12 artikulua; II. Titulua: 24-29 artikulua; IV. Titulua: 61-64 artikulua).

45. Haurrak eta nerabeak babesteko eta arreta emateko esparru juridikoa. 179/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duena (1. kapitulua: 1-6 artikulua, 2. kapitulua: 7-8 artikulua eta 4. kapitulua: 15-25 artikulua).

46. Sexu abusuak haurrengan eta nerabeengan. Definizioa eta ezaugarriak.

47. Indarkeria filio-parentala. Definizioa eta ezaugarriak.
48. Familia esku hartzea babesgabetasun egoeran dauden adingabeekin: definizioa eta helburuak, erabakiak hartzeko oinarritzko printzipioak. Esku hartze motak, kasu bakoitzaren beharrianen arabera: zein kasutan aplikatzen den eta esku hartzeko estrategiak.
49. Atxikimenduaren teoria. Oinarritzko kontzeptuak. Atxikimenduaren osaera. Atxikimenduaren garapena bizitza ziklo osoan.
50. Euskal Autonomia Erkidegoko haur eta nerabeen babeserako udal eta lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arrisku eta babesgabetasuneko egoeraren larritasuna balioesteko tresna (BALORA).
51. Jarduera gida, haurren alorrean ari diren gizarte zerbitzuei zuzenduta, Araba Lurralde Historikoan.
52. Bizi kalitatearen eredua: eredua, kontzeptua, dimentsioak eta adierazleak, ebaluazioa. Banakako aplikazioak, familiakoak eta erakundekoak gizarte zerbitzuetan.
53. Adimen desgaitasuna eta zahartzea.
54. Mendekotasuna duten pertsonen familiekin esku hartzea eta inguru-komunitatearekin egoitza zentroetatik.
55. Pertsona nagusiei tratu txarrak eta abusuak ematea. Prebentzioa, antzematea eta esku hartzea.
56. Iraupen luzeko eta bizitzaren amaierako zaintzak. Gizarte lana pertsona nagusiari eta bere familiari laguntza eta arreta ematean prozesuan zehar. Laguntza doluan. Aurretiazko berrondateen dokumentua.
57. Gaixotasun mentala daukaten pertsonetan berreskuratzea bideratutako arreta.
58. Gizarteratzeko jardun eremua eta printzipioak, diagnostikoa, marko kontzeptuala eta arau markoa (Gizarteratzeko IV. Euskal Plana 2017-2021, 2., 3., 4. eta 5. kapituluak).
59. Etxegabetasuna: kontzeptualizazioa, kausak eta Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko euskal Estrategiaren proposamena (Bizitegi bazterketa larrian dauden egoera saihestu eta murrizteko euskal Estrategia 2018-2021, 2 eta 6. kapituluak).
60. Euskadin suizidioa prebenitzeko estrategia.

UDALTZAIN LEHENAREN PLAZA 1, BARNE SUSTAPENERAKO ERRESERBATUA

Lehena. Deitutako plaza.

Udaltzain lehenaren plaza bat, derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin, C1 taldekoa, Administrazio Bereziko eskalan, Zerbitzu Berezien azpieskalan, Udaltzainen motan, Udaltzainen kidegoko oinarrizko eskalako udaltzain lehenaren kategorian, barne sustapenerako erreserbatua.

Bigarrena. Berariazko betekizunak.

1. Batxilergoko tituluaren, teknikoaren edo baliokidearen titulazio akademiko ofiziala edukitzea.

2. Amurrioko Udaleko karrerako funtzionario izatea, eta udaltzain kategorian zerbitzu aktiboko egoeran egotea.

3. Aipatutako kategorian karrerako funtzionario gisa hiru urteko zerbitzu tarte bate izana. Jatorrizko kategorian emandako zerbitzuak neurtze aldera, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen testu batekina onartu zuen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuaren 78.3 artikuluan ezarritakoa.

4. Falta larri edo oso larria dela medio zehatu ez izana, ezarritako zehapena baliogabetzea lortu bada salbu.

5. Funtzioa normaltasunez egitea eragozten duen akats fisiko edo gaixotasunik ez izatea, otsailaren 17ko 36/2004 Dekretuan ezarritako medikuntzako bazterketen taularen arabera, Euskal Herriko Poliziaren hautaketa eta prestakuntza araudia onartzen duen Dekretua bigarrenez aldatzen duena, egokitzeak jotako azterketa medikoen aurretik.

6. Bigarren hizkuntza eskakizuna.

7. B gidabaimena.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauexek izango dira kideak:

Presidentetza: Saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Kideak:

— Karrerako bi funtzionario.

— Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiak izendatutako ordezkari bat.

— HAEE-IVAPek izendatutako ordezkari bat.

Idazkaria: Udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Hautaketa sistema: Lehiaketa.

Izangaiek agiri bidez eta modu fede emaillean egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, kasuan kasuko ziurtagiri edo egiaztagiriekin, eskabidearekin batera aurkeztuko dituztenak, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

a) Euskal administrazio publikoen mendeko polizia kidegoetan zerbitzuak eman izana, karrerako funtzionario gisa zein bitarteko funtzionario gisa.

Udaltzain lehenaren edo Buruzagitzako funtzioak betetzen: Bi puntu zerbitzu urte bakoitzeko edo 6 hilabete baino gehiagoko zati bakoitzeko, gehienez 10 puntura arte.

Udaltzain funtzioak betetzen: Puntu bat zerbitzu urte bakoitzeko edo 6 hilabete baino gehiagoko zati bakoitzeko, gehienez 20 puntura arte.

Ondorio horietarako, udaltzain eta udaltzain lehena edo Buruzagitzako bi kategorietako edozeinetan zerbitzuan emandako denboragatik lortutako puntuazioak metatu egingo dira.

b) Prestakuntza ikastaroak: administrazio publikoetara atxikitako polizia prestakuntzako zentroek edo zentro horiek homologatu, baimendu edo diruz lagundutako zentroek irakatsitako prestakuntza eta hobekuntza ikastaroak baloratuko dira, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legeak polizia kidegoetarako ezarritako funtzioekin lotutakoak.

Kontzeptu honi dagokion gehieneko puntuazioa 10 puntukoa izango da; 0,1 puntu egiaztatutako ordu bakoitzeko.

Deialdietan parte hartzeko eta/edo kasuan kasuko eskala eta kategorietara sartzeko ezinbesteko betekizun gisa eskatzen diren ikastaroak ez dira inolaz ere ez baloratuko.

c) Titulazio akademiko ofizialak izatea, horiek edukitzea garrantzitsutzat jotzen bada kasuan kasuko lanpostua betetzeko: gehienez 5 punturekin baloratuko da.

Deialdietan parte hartzeko eta/edo kasuan kasuko eskala eta kategorietara sartzeko ezinbesteko betekizun gisa eskatzen diren titulazioak ez dira inolaz ere ez baloratuko.

Funtzioekin zuzenean lotutako lizentziatura (Kriminologia, Zuzenbidea, eta abar): 2,5 puntu.

Funtzioekin zuzenean lotutako diplomatura edo lizentziaturaren 3 ikasturte oso: 1,5 puntu.

Bosgarrena. Euskara azterketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Euskararen 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba izango da.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaiak salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egin behar, baita Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaiak ere.

ADMINISTRARI PLAZA 1, BARNE SUSTAPENERAKO ERRESERBATUA

Lehena. Deitutako plaza.

Administrari plaza bat; derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin; C sailkapen taldea, C1 azpitaldea, Administrazio Orokorra, administraria azpieskala.

Barne sustapena.

Bigarrena. Berariazko betekizunak.

Titulazioa: Batxilergo titulua, tekniko edo baliokidea.

Hizkuntza eskakizuna: 2.

ITTxartela: Word aurreratua, Excel aurreratua, Access oinarritzkoa, Internet oinarritzkoa eta Outlook.

Hirugarrena. Epaimahai kalifikatzailea.

Hauexek izango dira kideak:

Presidentetza: Saileko teknikari bat, karrerako funtzionarioa dena.

Kideak:

— Karrerako hiru funtzionario.

— HAEE-IVAPeko teknikari bat, euskara proba ebaluatzeko.

Idazkaria: Udal korporazioko plantillako karrerako funtzionario bat.

Laugarrena. Hautaketa sistema: Oposizio-lehiaketa libre

A) Oposizio aldia.

1. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Epaimahaiak gai zerrendaren harira proposaturiko zenbait gai erantzun beharko dira idatziz, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 4 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 2 puntu lortu behar dira.

2. ariketa: Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Lanpostuko zereginei buruzko ariketari ekin baino lehenago, epaimahaiak proposatutako kasu praktiko bat edo batzuk garatu beharko dira, ordubete gehienez.

Ariketa honetan 6 puntu emango dira gehienez; gainditzeko, 3 puntu lortu behar dira.

3. ariketa: Euskara azterketa. Nahitaezkoa eta baztertzaila.

Euskararen 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko proba izango da.

Bi kalifikazio baino ez daude: gai edo ez gai.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzen duen HAEE-IVAPeko ziurtagiria duten izangaiak salbuetsita egongo dira eta ez dute hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko azterketarik egin beharko, baita Euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan titulu baliokideren bat daukaten izangaiak ere.

b) Lehiaketa aldia.

Izangaiek agiri bidez eta modu fede emailean egiaztatu beharko dituzte merezimenduak, kasuan kasuko ziurtagiri edo egiaztagiriekin, eskabidearekin batera aurkeztuko dituztenak, eta merezimenduen balorazio ondorioetarako merezimenduen baremo hau aplikatuko da:

1. eta bakarra: Esperientzia profesionala.

lzangaiek gehienez ere 4,5 puntu lor ditzakete atal honetan.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan administrazio publikoan emandako zerbitzuak, C1 edo C2 taldeko kategoria, lan kontratuaren bitartez, funtzionario izendapenez edo administrazio kontratuaren bidez. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,09 puntu hileko.

— Bete beharreko lanpostuari lotutako funtzioetan enpresa pribatuan emandako zerbitzuak. Gehienez ere 4,5 puntu, 0,045 puntu hileko.

BARNE SUSTAPENENKO ADMINISTRARI PLAZAREN GAI ZERRENDAA

1. Administratua, motak.

2. Jarduteko gaitasuna eta pertsona interesdunaren kontzeptua. Ordezkaritza (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4-8 artikulua).

3. Administrazio prozeduran interesdunek beren burua identifikatzea eta sinatzea Ordezkaritza (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 9-11 artikulua).

4. Pertsonen administrazio publikoekiko harremanetan dituzten eskubideak. Administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko eskubidea eta betebeharra (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 12-14 artikulua).

5. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoan baliabide elektronikoak erabiliz jarduteko arautegia onartzen duena. Xedapen orokorrak (1-4 artikulua).

6. Sarrera eta irteera erregistroa. Erregistro Elektroniko Orokorra. Dokumentuen sarrera eta irteerak. Dokumentuak administrazio publikoan aurkeztea. Dokumentuak artxibatzea. Pertsonen kolaborazioa administrazioarekin. Pertsonen agerraldia. Izapideen erantzukizuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16-20 artikulua).

7. Interesatuak aurkeztutako dokumentuak. (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 27-28 artikulua).

8. 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, sektore publikoan baliabide elektronikoak erabiliz jarduteko arautegia onartzen duena. Administrazio espediente elektronikoa (46-53). Dokumentuen artxibo elektronikoa (54-55 artikulua).

9. Administrazio prozedura hastera (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 54-69 artikulua).

10. Administrazioaren isiltasuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 24-25 artikulua).

11. Prozeduraren denbora dimentsioa (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 29-33 artikulua).

12. Administrazio egintza, kontzeptua eta motak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 34-39 artikulua).

13. Administrazio egintzen jakinarazpena (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40-46 artikulua).

14. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47-52 artikulua).

15. Errekurtso administratiboak. Motak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112-126 artikulua).

16. Lizentzien araubide juridikoa, emateko prozedura (Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onetsi zuen 1955eko ekainaren 17ko Dekretua, 9-15 artikulua).

17. Zerbitzu publikoak emateko moduak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85-86 artikulua).

18. Udalerria, kontzeptua eta elementuak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 11-14 artikulua).

19. Populazioa eta errolda (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 15-17 artikulua).

20. Udal antolaketa (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 19-20 artikulua).

21. Alkatetzak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua; Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 40-45 artikulua).

22. Osoko Bilkura (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22., 46. eta 47. artikulua; Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 49-51 artikulua).

23. Tokiko gobernu batzarren funtzionamendua (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23. artikulua; Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 112. eta 113. artikulua).

24. Informazio batzordeak (Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 123-126 eta 134-138 artikulua).

25. Aktak eta erabakien ziurtagiriak (Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 109-110 eta 198-207 artikulua).

26. Erabakiak jakinaraztea (Toki erakundeen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoaren araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 192-197 artikulua).

27. Toki erakundeen arautzeko ahala: ordenantzak, arautegiak eta bandoak. Prestaketa eta onarpen prozedura (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49., 84., 84 bis, 84. hirugarrena, 139. eta 140. artikulua).

28. Administrazio publikoetako langileak (Enplegatu publikoaren oinarritzko estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 8-13 artikulua).

29. Enplegatu publikoen eginbeharra. Jokabidea kodea (Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, 52., 53. eta 54. artikulua).

30. Toki entitateen ondasunak: motak (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 79-83 artikulua).

31. Sektore publikoaren kontratuak: kontratu motak, formak eta esleitzeko prozedura (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 1-3, 12-18, 24-27, 116-120 eta 131. artikulua; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

32. Administrazio kontratuak toki mailan. Kontratazio espedienteak (Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 116-120 eta 131. artikulua; horren bidez, 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora).

33. Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa (6-9 artikulua).

34. Datu pertsonalen babesa: Pertsonen eskubideak (Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoren 12-18 artikulua).

35. Administrazio publikoaren eta agintarien erantzukizuna eta administrazioen zerbitzura dauden langileena. Erantzukizun mota; Administrazio Publikoaren ondare erantzukizunaren kontzeptua eta printzipio orokorrak (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 32-37 artikulua; Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 81., 82.5, 86.5, 91. eta 92. artikulua).

36. 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunaren, informazio publikoa eskuratzearen eta gobernu onarena (12-20 artikulua).

37. Laneko arriskuen prebentzioa: 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, laneko arriskuetan aurrea hartzekoa. III. kapitula. Eskubideak eta betebeharrak (14-29 artikulua) V. kapitula. Langileen kontsulta eta parte hartzea (33-40 artikulua).

38. 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta gizonen berdintasun eragin-garrirakoa. 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (3/2007 Lege Organikoren 1-19; 51-64 artikulua; 1/2004 Lege Organikoren 1. eta 2. artikulua).

39. Amurrioko Udaleko Izapideen Eskuliburua.

40. Herritarren Arretarako Zerbitzua.

Amurrio, 2021eko azaroaren 23a

Alkatea

JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA